



cederna garalur



Lankidetzaz, aukera-berdintasuna, iraunkortasuna, enplegu, partaidar

Cederna Garalur Elkarteak

Lan Memoria

2013. urtea

Aurkibidea

Aurkibidea	1
1. Sarrera	2
2. Abiapuntuko testuingurua eta 2013ko egoera	13
2.1 Elkartearen erronkak 2012an eta 2013an.....	14
2.2 Lantalde teknikoa doitzea.....	15
2.3 “Nafarroako Mendialdea” Landa Garapeneko Programa, 2007-2013, gauzatzea	15
2.4 2014-2020 epealdia eta LGP programako 4. Leader ardatzaren aplikazioa Nafarroako Mendialdean. Cederna Garalur Elkartearen perspektiba.....	16
3. Cederna Garalur Elkartearen arlo estrategikoak eta horiek landa- garapenarekiko duten erlazioa	18
4. Landa-garapena	23
4.1. Landa-garapeneko agentziak.....	24
4.2 Nafarroako Mendialdea - LGP landa-garapenerako programaren jarraipena (LEADERen 4. ardatza, 2007-2013).....	28
5. Cederna Garalur Elkartearen proiektuak	39
5.1 ITERA-AA: berrikuntza landa-eremuetako nekazaritzako elikagaien sektorean.	40
5.2 BASOLAN.....	45
5.3 Gure bideetan barrena.....	50
5.4. “Ekintzaitzarako prestakuntza”. Prestakuntza-programa enpresa txikientzat.	56
5.5. ERNE, “Ideiatik merkatura”.....	60
5.6. Kalitatea turismoan.....	64
5.7. MERKAT-ARI proiektua.....	68
5.8. CYBERSUDOE’INNOV.....	71
5.9. LANIN-G: tokiko gobernanzarako eredu berriak, herritarren parte-hartzearen bidez.....	74
6. Informazioa eta komunikazioa	79
7. Eraitza ekonomikoak	89

1. Sarrera

Cederna Garalur Elkarteak irabazi asmorik gabeko erakundea da, Nafarroako Mendialdearen garapen endogenoa eta jasangarria tokian tokiko lankidetzaren bitartez bultzatzeko sortu, lurraldeko ondare-, natura-, giza eta ekonomia-baliabideak erabiliz horretarako.

Elkartea 1991ko abenduan sortu zen, Nafarroako Mendialdeko interesak biltzeko, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, eta lurraldea osatzen duten pertsonen, erakundeen eta udalerrien gizarte-, kultura- eta ekonomia-premiei erantzuteko. Orduetik, honako hauek dira elkartearen jardura eusten duten zutabeak:


- Nafarroako Mendialdearen garapena bultzatu, osoko ikuspegi batetik, eskuragarri dauden baliabideak modu harmonizatuan bilduz lurraldeko landa-eremu guztietan.
- Nafarroako Mendialdearen garapenean inplikaturik dauden ekonomia- eta gizarte-eragileen (publikoak zein pribatuak) elkargune eta ordezkaritza-foroa izan, eta lurralde-identitate bat sortu, "Nafarroako Mendialdea" izeneko marka.
- Biztanleriak lurraldean jarraitzea lortu landa-eremuaren geroa bermatze aldera, eta, batetik, bertan bizi direnen bizi-kalitatea hobetu (herritarrei bideratutako zerbitzuak hobetuz), eta enplegu egonkorra eta etorkizuna izanen duen enplegua sortzea eta finkatzea bultzatu, Nafarroako Mendialdea lan egiteko eta bizitzeko lekua izan dadin.

2013ko abenduaren 31n, Cederna Garalur Elkarteak 110 elkartekide zituen; horietatik gehienak (97) toki-erakundeak ziren. Horiez gain, hiru zuzendaritza-batzorde ditu, zerbitzuen mankomunitate bat eta 9 erakunde sektorial, horien artean langileen sindikatuak, nekazaritzako erakunde profesionalak, enpresa-erakundeak, Caixa eta beste hainbat kultura-, kirol- eta landa-turismoko erakunde.

Bestalde, Elkarteak honako hauen bazkidea da: REDR ("Espainiako landa-garapenerako sarea") sarekoa, Nafarroako marketin-klubekoa, ANEL-ekoa (Nafarroako lan-enpresen elkarte), UrdimbRED-ekoa (landa-eremuetako Europari buruzko informazio-zerbitzuak), eta Nafarroako turismo-kontseilukoa. Halaber, Cederna Garalur Elkarteak Nafarroako Mendialdeko turismo-kalitaterako batzordeko kidea eta koordinatzailea da; aipatu batzordeak SICTED (xedeko turismo-kalitatearen sistema integrala) kudeatzen du, Nafarroako Gobernuak finantzaturik eta turismoko Estatu-idazkaritzak bultzatuta. Horrez gain, turismo-kalitatearen Q ziurtagiria kudeatzen duen ICTE-k ("Espainiako turismo-kalitaterako institutua") Nafarroan duen ordezkaritza da, eta Nafarroan Europari buruzko informazioa ematen duen zerbitzu bakarra, "Europe



Direct", gure elkartearen dago. Cederna Garalur Elkartearen lehendakariak Nafarroako Lurralde Estrategiaren gizarte-kontseiluan hartzen du parte.



1. irudia. Cederna Garalurrera elkartutako erakundeak, eta elkartea zein erakundetako partaide den.

1. taula. Zuzendaritza-batzordea

Ordezkarria	kargua	Erakundea	Eskualdea edo sektorea
Jose Maria Aierdi	Lehendakaria	Lekunberriko Udala	Larraun eskualdea
Mauro Gogorcena	Lehendakariordea	Ilunberriko Udala	Ilunberri eskualdea
Jesus Olias	Idazkaria	UCAN	Erakunde sektoriak
Josetxo Etxarte	Diruzaina	EHNE	Erakunde sektoriak
Sandra Iraizoz	Batzordekidea	Ultzamako Udala	Ultzama eskualdea
José Javier Carlosena	Batzordekidea	Otsagabiko Udala	Zaraitzu Ibarra
Aitor Karasatorre	Batzordekidea	Sakanako Mankomunitatea	Sakana
Angel Navallas	Batzordekidea	Zangozako Udala	Zangoza eskualdea
Gloria Aguerri	Batzordekidea	Doneztebeko Udala	Malerreka/Bertizarana eskualdea
Pablo Miranda	Batzordekidea	Goizuetako Udala	Leitzaran eskualdea
Enrique Garralda	Batzordekidea	Erroibarko Udala	Erro-Esteribar eskualdea
Jon Abril	Batzordekidea	Berako Udala	Bortzirriak eskualdea
Garbiñe Elizegi	Batzordekidea	Baztango Udala	Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi eskualdea
Fermin Garcia	Batzordekidea	Urrotz Hiriko Udala	Agoitz eskualdea
Bernardo Ciriza	Batzordekidea	Nafarroako Kutxa	Erakunde sektoriak
Fernando San Miguel	Batzordekidea	Nafarroako Ganbera	Erakunde sektoriak
Maite Baleztena	Batzordekidea	CCOO	Erakunde sektoriak: langileen sindikatuak
Jesus Recalde	Batzordekidea	UAGN	Erakunde sektorialak
Alberto Mainz	Batzordekidea	Bidankozeko Udala	Erronkari eskualdea
Daniel Irigoyen	Batzordekidea	Aezkoa Ibarreko Batzarra	Aezkoa eskualdea

UDALERRIAK	UDALERRIAK
Abaurregaineko Udala	Lakuntzako Udala
Abaurrepeko Udala	Larraungo Udala
Oibarko Udala	Leatxeko Udala
Altsasuko Udala	Leitzako Udala
Anueko Udala	Lekunberriko Udala
Agoizko Udala	Lergako Udala
Araizko Udala	Lesakako Udala
Arantzako Udala	Ledeako Udala
Arbizuko Udala	Ilunberriko udala
Artzibarko Udala	Luzaideko Udala
Aresoko Udala	Eloko Udala
Aribeko Udala	Nabaskozeko Udala
Arruazuko Udala	Otsagabiko Udala
Atezko Udala	Oizko Udala
Aurizko Udala	Olaztiko Udala
Bakaikuko Udala	Orontzeko Udala
Basaburuko Udala	Oroz Beteluko Udala
Baztango Udala	Orreagako Udala
Beintza Labaiengo Udala	Petilla de Aragoneko Udala
Berako Udala	Erromantzatuko Udala
Bertizaranako Udala	Erronkariko Udala
Beteluko Udala	Zareko Udala
Burgiko Udala	Saldiasako Udala
Kasedako Udala	Zangozako Udala
Donamariako Udala	Sunbillako Udala
Doneztebeko Udala	Uharte Arakileko Udala
Elgorriagako Udala	Urdazubiko Udala
Eratsungo Udala	Urdiaingo Udala
Eslabako Udala	Urraulgoitiko Udala
Espartza Zaraitzuko Udala	Urraulbeitiko Udala
Esteribarko Udala	Urrozko Udala
Etxalarko Udala	Urrotz Hiriko Udala
Etxarri Aranazko Udala	Urzainkiko Udala
Ezkurrako Udala	Uztarrozeko Udala
Ezporogiko Udala	Bidankozeko Udala
Galipentzuko Udala	Esako Udala
Galozeko Udala	Ziordiko Udala
Garaioako Udala	Zubietako Udala
Gardeko Udala	Zugarramurdiko Udala
Goizuetako Udala	Lizoain - Arriasgoitiko Udala
Hiriberri Aezkoako Udala	Arakil Ibarreko Udala
Igantziako Udala	Erroibarko Udala
Imozko Udala	Ibargoitiko Udala
Irañetako Udala	Itzagaondoko Udala
Irurtzungo Udala	Longida Ibarreko Udala
Izabako Udala	Olluibarko Udala
Iturengo Udala	Ultzama Ibarreko Udala
Itzaltzuko Udala	Untziti Ibarreko Udala
Xabierreko Udala	Larraungo Udala

IBARREKO BATZARRAK

Erronkari Ibarreko Batzarra

Aezkoa Ibarreko Batzarra

Zaraitzu Ibarreko Batzarra

MANKOMUNITATEAK

Sakanako Mankomunitatea

Erakunde sektorialak

AMUR

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera

NAK

CC.OO

EHNE

UAGN

UCAN

Sakanako Enpresaburuen Elkarte

Landa Hotelen Elkarte



Batzar nagusia	Elkartearen kide anitzeko organo subirano eta gorena da. Elkartearen kide guztiek osatzen dute, eta berari dagokio Elkartearen dokumentu organiko garrantzitsuak onartzea, baita afera garrantzitsuenak lantzea ere.
Zuzendaritza-batzordea	Elkartearen gobernu, kudeaketa, administrazio eta ordezkapenerako kide anitzeko organoa da, eta entitate honetan dauden talde sektorialetako ordezkariak osatzen dute, honela banaturik: 14 eskualde eta toki-erakundeetako ordezkari, eta 9 batzordekide, elkarte honetako toki-entitate esanguratsuenen ordezkariak.
Batzorde betearazlea	Batzorde Betearazlea bazkideek edo elkartearen lan esparruko beste pertsona batzuek Elkarteari aurkeztutako proiektuak sustatzen, aztertzen, irizpena ematen, erabakitzen eta bideratzen dituen organoa da, eta honela dago osaturik; toki-entitateetako sei ordezkari, eta zazpi entitate sektorialetakoak, lehendakaria eta lehendakariordea.
Lehendakaria	Lehendakaria elkartearen organo betearazlea da, Elkartearen ordezkapen legala du, kide anitzeko aginte-organoak, eta administrazio eta kudeaketa organoak deitzen ditu eta horien buru da; halaber, horien guztien erabakiak betetzen ditu.



Izabaren ikuspegi orokorra. Iturria: www.vallederoncal.es

Nafarroako Mendialdearen alde 20 urtetik gora emanda, Cederna Garalur Elkarteak barne-hausnarketa garrantzitsua burutu du elkarteak landa-eremuan dinamizazioaren inguruan duen eginkizunari, elkarteak lurraldeko ekonomia- eta gizarte-eragileekin duen erlazioari, eta aipatu eragile horien eta beste entitate eta erakunde batzuen artean (tokiko ekintza-taldeak, eskualde-, estatu- eta Europako agintariak, kasu) betetzen duen koordinazio-eginkizunari buruz, baita barneko eta kanpoko baliabideak arrazionalizatzeari eta elkartearen azken onuradunekiko komunikazioari buruz ere; aipatu onuradunak Nafarroako Mendialdeko herritarrak, erakunde publikoak eta sektorialak izanik. Hausnarketa horren ondorioz, elkarteak honako hauek ezarri ditu:

Lan-printzipioak

Lan-printzipioak dira elkartearen jardueraren oinarria eta zimendua, elkartearen estiloa definitzen dutenak. Horrela, Cederna Garalur Elkarteak:

- Nafarroako Mendialdetik, Mendialdearentzat, Mendialdeak berak eta Mendialdearekin sortua da, lurralde horretan bizi diren pertsonentzat eta bertan lanean diharduten eragile publiko eta pribatuentzat.
- **ELKARTEA** da; alegia, elkartutako erakundeek antzemandako premien eta eskaeren arabera dihardu. Elkartutako erakunde horiek, aldi berean, Cederna Garalur Elkarteak haien lurraldeetan betetzen duen lanaren erantzuleak eta azken bezeroak dira.
- Lurraldearen errealitate geografiko, sozial eta ekonomikoaren arabera dago dimentsionatuta eta egituratuta.
- Elkarte baliagarria eta dinamikoa da, etengabeko bilakaeran dagoena, motibatze eta konfiantza sortzeko, eta tokian tokiko eskaerei benetan erantzungo dieten proiektuak garatzeko gaitasunarekin.
- Irekia da, eta parte-hartzailea Nafarroako Mendialdean sortzen diren ekimenetan, eta jarrera proaktiboa dauka.
- LEADER programako "*bottom-up*" metodologia aplikatzen du, eta eskualdeetatik sortzen diren eta, aldi berean, tokiko eta sektoreetako jardunbiderako erreferente izanen diren estrategia globalak eta programak planifikatzen ditu.
- Ekimen publikoaren eta pribatuaren, hainbat kolektiboren, administrazioen eta sentsibilitateren arteko sinergiak aprobetxatzeko gai da.

Helburuak

Cederna Garalur Elkarteak honako helburuak lortzeko egiten du lan:

- Bere jarduera-esparruan, Nafarroako Mendialdean, toki-garapena bultzatzeko, eragile publikoen eta pribatuen, entitateen eta herritarren arteko lankidetzaz suspertzen du, erabilgarri dauden baliabideak modu eraginkorrean errentagarri bihurtzeko.
- Nafarroako Mendialdeko eragile politiko, sozial eta ekonomikoen artean komunikazio-bideak ezartzeko, eskualde-mailan eta orokorrean "lurralde-identitatea" finkatze aldera, eta arazoak, premiak eta soluzioak partekatze aldera.
- Zonaldeko ekonomia-garapena bultzatzeko, egun dauden enpresak hobetuz eta finkatuz, aniztasun ekonomikoaren bitartez. Halaber, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-oreka lortzeko.
- Ekintzaile publiko eta pribatuari zerbitzuak eta sostengua emateko, tokiko baliabideei balioa emanez, enplegua sortzen laguntze aldera.
- Kalitateko turismo-xedea garatzeko.

Estrategia eta lan-arloak

Helburu horiek lortzeko, Cederna Garalur Elkarteak 5 arlo funtzional definitu ditu: toki-garapeneko estrategiak; ekintzailtza bultzatzea; turismoa, merkataritza eta zerbitzuak; lehen sektorea eta baso-sektorea; eta teknologia berriak, partaidetza, komunikazioa eta berdintasuna.

Arlo horiek lotura estua dute elkarrekin, eta baliagarriak zaizkio Cederna Garalur Elkarteari ikuspegi oso eta horizontal batekin lurraldeko baliabideak ustiatu ahal izateko proiektuak martxan jartzeko, horretan inplikatuz profil eta interes anitzeko eragileak (enpresak, partikularrak, erakunde publikoak), proiektuek sektore ekonomikoetan eta pertsonengan izanen duten eragina albait gehien areagotuz.

Giza-baliabideak eta baliabide teknikoak

Cederna Garalur Elkarteak, bere helburuak lortzeko, 18 profesionalen osatutako talde dauka; adituak landa-berrikuntzan, toki-garapenean, ekintzailtza eta enpleguan, turismoan, Europari buruzko informazioan eta teknologia berrietan.

Taldeak sarean egiten du lan, eta beren ezagutzak, esperientziak eta lana partekatzen dituzte, erantzukizunak eta eginkizunak banatzeko koordinatzen dira; horrela, proiektuen definizioa eta garapena aberasten dituzte, eta, halaber, erabilgarri dauden baliabideak optimizatzen dituzte.

Talde hori, batetik, hainbat finantziario-iturritatik (Nafarroako Gobernua, Estatuko ministerioak, Europar Batasuna, babesletza pribatuak) datozen baliabide ekonomikoak biltzeaz, erakartzeaz eta kudeatzeaz arduratzen da, elkartearen beraren proiektuak definitzea eta martxan jartzea, nahiz zonaldeko proiektuak kudeatzea ahalbidetuko dutenak.

1 Zuzendaritza-gerentzia

8 Eskualdeko garapen-agentziak

- Sakana
- Mendialdea-Leitzarana-Ultzama
- Malerreka-Bertizarana-Bortziriak
- Baztan- Zugarramurdi- Urdazubi
- Esteribar-Erroibar-Aezkoa- Luzaide
- Pirinioaurreko arroak
- Zangoza
- Erronkari-Zaraitzu

7 Teknikari adituak


- Landa-Garapena
- Administrazioa eta kudeaketa
- Enpresak, enpresa-ekimena eta enplegua
- Teknologia berriak, informazioa eta komunikazioa
- Turismoa eta kalitatea

3 Enpresentzako zerbitzu-zentroak

- Arbizu
- Lesaka
- Izize

1 “Europe Direct” informazio-gunea

Cederna Garalur Elkartearen lantaldea



2. irudia. Cederna Garalur Elkartearen lan-arloa eta proiektuen ikuspegi osoa eta diziplina anitzekoa

2. Abiapuntuko testuingurua eta 2013ko egoera

2.1 Elkartearen erronkak 2012an eta 2013an

Erakunde eta lantalde gisa, 2013. urtean Cederna Garalur Elkarteak honako helburu hauek ezarri zituen:

- Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak finantzaturik, Nafarroako Mendialdeko 2007-2013 epealdirako LGP programako 4. ardatza ezartzeari zegokionez, proiektu propioak diseinatzea, abiapuntu gisa lurraldean antzemandako premiak hartuta, eta Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako Departamentuak (programaren kudeaketan aginteduna) ezarritako kudeaketa-arauak gehituta, bereziki elkartearen langileak esleitzeari zegokionez.
- Erakundearen finantza-karga berraztertzea, aipatu karga hiru urteko epean murriztea ahalbidetuko duten aukerak bilatze aldera, erakundearen eraginkortasun handiagoa lortzearen.
- Erakundearen egitura teknikoa gaitasun ekonomiko errealerara doitzea, eta lantalde indartsua, Nafarroako Mendialdearen errealitatera hurbil egonen dena, sortzen aurrera egitea.
- Lantalde tekniko osoa Nafarroako Mendialdeko hainbat udalerritan kokatzea eta banatzea.

Hori guztia, erakundearen ekonomia-egoerak baldintzaturik, honako hauen ondorioz:

1. Landa-garapenerako aitazineko programen likidazioetan izandako gertakariak eta atzerapenak.
 - Leader 2000-2006 programaren likidazio negatiboa.
 - Leader+ ADESNAR (2000-2006) programaren itxiera.
 - Nafarroako Gobernuarekiko 2009-2011 epealdirako lankidetzaren hitzarmena ixtea eta horren justifikazioa.
2. Egungo LGP programako proiektuak balidatzen eta gastuetan izandako gertakariak eta atzerapenak.
 - Egungo LGP 2007-2013 programan berrikustekoak diren espedienteak.
3. Arian-arian zorpetze-maila eta finantza-kargak areagotu izana.
 - Erakundeak Antsoainen zuen bulegoa erosteko eta mantentzeko finantza-gastuak eta gastuak.
 - Finantza-erakundeek onartutako baldintzak berraztertu izana, eta kredituak mailegu bihurtu izana.

2013an, Cederna Garalur Elkarteak afera horiek konpontzen saiatu da, programak kudeatzearen ondorioz sortzen diren eta finantzarriak ez diren finantza-karga horiek arinduko duten neurriak ezarriz.

2.2 Lantalde teknikoaren doitzea

Egoera ekonomiko - finantzarioari aurre egiteko ezinbesteko neurrietako bat lantalde teknikoaren berregokitzea izan da, langile guztiei eustea bideraezina baitzen. Horrela, honako erabakiok hartu ziren:

- Laneko orientazio-zerbitzuko arduradunaren kontratua etetea, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ez zuelako jarduera hori eusteko diru-laguntzarik eman.
- Enplegua erregulatzeko espediente bat aplikatu zen langileekin adostua negoziazio-prozesu baten ondoren. Horren ondorioz, erakundeko lau langileren kontratua eten egin zen.
- Hainbat langileri lanaldia murriztu zitzaizen, funtsean horien gastuei aurre egiteko erabilgarri zegoen dirua mugatua zelako.

2013. urtearen amaieran, Cederna Garalur Elkartearen plantilla 18 langilek osatzen zuten, urtebete lehenago (2012 bukaeran) baino 10 langile gutxiago. Gertaera horrek eta hartutako erabakiek lanak eta helburuen gauzatzea nabarmen berregokitzea ekarri du.

2.3 “Nafarroako Mendialdea” Landa Garapenerako Programa, 2007-2013, gauzatzea

2013an, Cederna Garalur Elkarteak 'Nafarroako Mendialdea' LGP 2007-2013 programako erabilgarri guztiak konprometitzea erabaki zuen; beraz, dei deialdi proposatu ziren, 2013ko maiatzean eta abenduan. Bi deialdi horietara denetara 107 proiektu aurkeztu ziren, eta 77k jaso zuten oniritzia. 4. kapituluak 2013an 'Nafarroako Mendialdea' LGP programaren gauzatze-maila zehazten du.

2.4 2014-2020 epealdia eta LGP programako 4. Leader ardatzaren aplikazioa Nafarroako Mendialdean. Cederna Garalur Elkartearen perspektiba.

2014a funtsezkoa da heldu den epealdirako (2014-2020) estrategiak definitzeko; trantsizio urtea da, eta horretan ezinbestekoa izanen dugu Europatik, Estatutik eta Nafarroako Gobernutik ezartzen diren jarraibideak eta estrategiak hurbiletik jarraitzea.

2014ko maiatzerako, Estatuko 2014-2020 epealdirako landa-garapenerako programa diseinatuta egotea aurreikusten zen, eta ekainean, berriz, programa berriak aurkeztea Bruselan. Estatuko programa eskualde-programekin bateragarria izanen da, eta bataren eta besteen neurriak argi eta garbi definiturik egonen dira.

Nafarroako Mendialdeko landa-garapenerako programa berria prestatzeari dagokionez, Cederna Garalur Elkarteak honako lan-ildoak ezarri dizkio bere buruari:

- Estatuan zein eskualdeetan ezarriko diren jarraibideen eta zirriborroen jarraipen etengabea egitea, egin beharreko ekarpenak egiteko, horren xedea izanik finantziazio-linea hobekak, behar beste baliabide ekonomiko, dinamizazio-baldintzak eta kudeaketa tekniko eraginkorra bermatzea.
- Lurraldeetako lantaldeak finkatzea, eta horien bitartez parte-hartze publikoa, pribatua eta gizartearen parte-hartzea bultzatzea, hurrengo landa-garapenerako programako estrategiak eta ildoak, eta finantzatu beharreko ekintzak definitze aldera.
- 2014-2020 programa diseinatzea, Nafarroako Mendialdearen ikuspegitik proposatutako estrategiak eta ekintzak jaso eta zehaztuko dituen, lurralde osoari eta eskualdeek propioak eta berariazkoak dituztenei begira (ezaugarri eta baliabide berezikoak) premiak eta helburu komunak identifikatu, eta horiei erantzungo diena.
- Eskualdez haraindiko eta, bereziki, mugaz haraindiko lankidetzak gehitzea ekonomia eta enplegua sortzen lagunduko duten tresna gisa, mugaz bi aldean artean koordinatuz eta garapen-estrategiak partekatuz.
- Cederna Garalur Elkartearen estrategian enplegua, ekintzailtza eta prestakuntza indartzea zeharkako lan-ildo gisa, enplegua sortu eta dagoena mantenduko dela bermatze aldera, bereziki gazteena, langabezia dauden 45 urtez gorakoena, eta oro har, emakumeena.

Aurreikusitakoaren arabera, 2014ko bigarren seihilekoan Cederna Garalur Elkarteak toki-erakundeak landa-garapenerako programa berrira atxikitzeko eskaera abian jarriko du, eta parte-hartze kolektiboa oinarri izanen duen estrategia idaztea ahalbidetuko duen metodologia definituko eta inplementatuko du, 2014. urte amaierarako itxita egon beharko duen metodologia.




Pirinioak Las Coronas mendatetik (Nabaskoze)

3 ■ Cederna Garalur Elkartearen arlo estrategikoak eta horiek landa-garapenarekiko duten erlazioa

1. kapituluan aipatutakoaren arabera, Cederna Garalur Elkartearen azken xedea da "Nafarroako Mendialdearen garapen endogenoa eta jasangarria suspertzea", eta lurraldea "bizitzeko eta lan egiteko lekua" bihurtzea.

- Garapen endogenoa: lurraldeko giza baliabideak, ekonomia-, ondare-, ingurumen- eta kultura-baliabideak aprobetxatuz.
- Garapen jasangarria, bi ikuspuntutatik: Batetik, "ekonomiaren jasangarritasuna", tokiko ekonomiari eutsiz eta bultzatuz, landa-eremuetan biztanleria galtzea saihesteko, eta eskualdeetako gizarte- eta ekonomia-ehuna elikatzekeo estrategia gisa; eta bestetik, "ingurumenaren jasangarritasuna", Nafarroako Mendialdeko herrien eta jendearen alderdi ekonomikoak, kulturalak eta ingurumenekoak zainduz, eta horiek bistaratzuz eta balioa emanez.

Horrez gain, Cederna Garalur Elkarteak bere jarduera lurraldean burutuko dituen jardun guztiek hiru printzipio dituzte: lankidetzak, aukera-berdintasuna eta jasangarritasuna.



3. irudia. Cederna Garalur Elkartearen lanaren zeharkako printzipioak.

Lanean hasi zenetik, Cederna Garalur Elkartearen arlo estrategiko garrantzitsuenetako bat izan da ekintzailtzari sostengua ematea; izan ere, betidanik, landa-eremuan lan-merkatuan txertatzeko eta merkatu horri eusteko modu bakarrenetako bat ekintzaile izatea eta negozio bat sortzea izan baita. Bi jardueraren inguruan gauzatzen da Cederna Garalur Elkartearen sostengu hori: negozio bat sortzen eta martxan jartzen

emandako laguntza, eta dagoeneko martxan diren enpresak finkatzen eta proiektatzen emandako laguntza enplegua suntsitzea saiheste aldera; horretarako, jarduera dibertsifikatuz eta berrikuntzaren, bikaintasunaren, kalitatearen eta prestakuntzaren bidez.

Elkartearen ikuspuntutik, eta lurraldearen garapen endogenoaren printzipioarekin bat, Cederna Garalur Elkartek ohiko hainbat ekonomia-jarduera identifikatu ditu.

Lehen sektorea, nekazaritza eta abeltzaintza, eta horiei loturik tokiko nekazaritzako elikagaiak, tokian tokiko kontsumoa bultzatzea, merkatu-zirkuitu laburrak bultzatzea, eta abar.


Baso-baliabideak, zura komertzializatuz, edo ekimen berrien bitartez (biomasa edo mikologia, kasurako).

Tokiko merkataritza eta mugako merkataritza; ez soilik ekonomia-jarduera gisa, baita lurraldea dinamizatzeko eragile gisa suen ahalmengatik ere, eskualdearen, bertako produktuen eta ondarearen "erakusleihu" bihurtuta.

Esku-langintzak, arian-arian balio handituak, merkatu eta enpresa-proposamen berrietarako aukera berriak zabaldu ditu, erakusketa-guneen bidez, bisita gidatuen bidez, nahiz prestakuntza-eskolen bidez, besteak beste.

Turismoa, kalitatearen eta bikaintasunaren, eta aisia-jarduera osagarriak sortzearen aldeko apustua eginda, Nafarroako Mendialdeko baliabide bereziei loturik: paisaia, ura, naturagune babestuak, ondare historikoa, kulturala eta artistikoa, herrigune historikoak, etnografia...

Bi sektore estrategikotan elkarturik (batetik lehen-sektorea eta baso-sektorea, eta bestetik ondare-, turismo-, merkataritza- eta zerbitzu-sektorea), jarduera ekonomikoaren sustapenak euskarri dituen bi zutabeak dira; funtsean, eta aipatu dugun moduan, Nafarroako Mendialdea sustatzeko eta garatzeko, horren guztiaren oinarri komunikazioa, aukera-berdintasuna eta lan egiteko modu berri bezala teknologia berrien erabilpena izanik.



4. irudia. Cederna Garalur Elkartearen arlo estrategikoen irudia

Horrela, Cederna Garalur Elkarteak sortzen dituen proiektuak (5. atalean zehaztuak) arlo horietako batean edo gehiagotan txertatzen dira, ekintza batek lurraldean izanen duen eragin positiboa aberasteko eta maximizatzeko ezinbestekoa baita ekintza hori hainbat ikuspuntutatik lantzea, eta oinarrizko ideia beste sektoreetako profesionalak egindako ekarpenekin aberastea. 3. taulak Cederna Garalur Elkarteak 2013an landutako proiektuen diziplina anitzeko ikuspegia erakusten digu.

Proiektua	Lurralde-garapeneko estrategiak	Lehen sektorea eta baso-sektorea	Enpresak, ekintzailtza eta prestakuntza	Ondarea, turismoa, merkataritza eta zerbitzuak	IKTB, komunikazioa, partaidetza eta berdintasuna
ITERA-AA		X	x		
Basolan		x	x	x	
Gure bideetan barrena				x	x
Merkat-ari			x	x	
ERNE			x		
Cyberinnov			x		x
Prestakuntza			x		
Lanin-G	x				x

3. taula. Cederna Garalur Elkarteak buru izan duten proiektuak




5. irudia. Cederna Garalur Elkartearen arlo estrategikoak eta horiei loturiko ekintzak eta proiektuak.

4. Landa-garapena

4.1. Landa-garapeneko agentziak

Cederna Garalur Elkarteak zortzi tokiko enplegu- eta garapen-eragile ditu (TEGE); zazpi emakume eta gizon bat, zortzi eskualdetan lanean dihardutenak.



- Sakana
- Mendiak- Leitzarana- Ultzama
- Mallerreka- Bertizarana- Bortziriak
- Baztan- Urdazubi- Zugarramurdi
- Esteribar- Erroibar- Aezkoa- Luzaide
- Prinioaurrea
- Erronkari- Zaraitzu
- Zangoza

6. irudia. Cederna Garalur Elkarteak. Nafarroako Mendiak-eko eskualdeak.

Tokiko enplegu- eta garapen-eragileak Nafarroako Mendiak-ekoen, erakunde publikoen eta pribatuen, herritarren eta elkartearen beraren arteko solaskideak dira, eta parte-hartze aktiboa dute:

- Eskualdeen eskaerei soluzioak bilatzen; horretarako, Cederna Garalur Elkartearen beraren nahiz beste instituzioen baliabide finantzarioak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak baliatzen ditu.
- Cederna Garalur Elkartearen lantalde teknikoari eskualdeetan sortzen diren estrategiak eta eskaerak helarazten.
- Udalen, enpresen, elkartearen eta herritarren artean Cederna Garalur Elkartearen giza baliabideak eta ezagutza zabaltzen, eta horien esku uzten.

Aldi berean, Cederna Garalur Elkarteak TEGE horiek baliatzen ditu elkartearen Nafarroako Mendiak-eko eskualdeetara hurbiltzeko, eta uztartu egiten ditu eskualdeen errealitatea, eskaerak eta ekintza-ildo estrategikoak Elkartearen barne-proiektuekin eta definitutako lan-ildoekin, Nafarroako mendiak-ekoen garapen harmonikoa bermatze aldera ("bottom-up" edo behetik gorako metodologia).

Tokiko enplegu- eta garapen-eragileen helburuak eta eginkizunak

TGE baten helburu nagusia da haren lurraldeak ematen dizkion bitarteko ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak, fisikoak eta giza baliabideak baliatuz tokian tokiko garapena sustatzea, agentziaren lurraldean nahiz lurraldetik kanpo lan egiten duten erakundeekin, teknikariek eta eragile sozioekonomikoekin sareko lanak integratuz eta lan horiek aprobetxatuz.

Honako printzipioak ditu garapen-eragileen jarduerak

Lurraldearen, baliabideen eta aukeren, ahulezien eta erronken analisia.

Aipatu baliabideak aktiboki garatzea (baliabide ekonomikoak, gizarte-arlokoak, ingurumenekoak eta kulturalak, besteak beste).

Ekintzen eta proiektuen ikuspegi integratzailea eta epe luzerakoa.

Tokiko ekonomia- eta gizarte-eragileekiko lankidetzaren garapen-agentzietatik ekimenak identifikatzeko eta horiek martxan jartzeko.

Ekintzen eraginaren ebaluazioa, etengabeko hobekuntza-prozesu baten barnean.

Berriazko printzipio horiei zeharkako printzipioak gehitzen zaizkie:

Berrikuntza eta zerbitzuen kalitatea

Aukera-berdintasuneko politikak


Ekonomiaren iraunkortasuna

Ezagutzak eta esperientziak trukitzea

Ingurumen-jasangarritasuna

Printzipio eta helburu orokor horietatik ondorioztatzen dira Cederna Garalur Elkarteko enplegu- eta garapen-eragileen eginkizunak, baita enplegu- eta garapen-eragile horiek betetzen dituzten ekintzak ere:

CEDERNA GARALUR ELKARTEKO TOKIKO GARAPEN ERAGILEEN



CEDERNA GARALUR ELKARTEKO TOKIKO GARAPEN ERAGILEEK BETETZEN DITUZTEN LANAK

Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak LGENFren bitartez finantzaturako 'Nafarroako Mendialdea' LGP 2007-2013 programa kudeatu eta gauzatu.

Enplegua, ekintzaileak eta tokiko enpresa-ehuna sustatzea.

Enplegurako azpiegiturak eta ekipamenduak sustatzea eta kudeatzea (erabilera anitzeko zentroak, industrialdeak, industria erakartzea, enplegu-hobiak, eta abar).

Lurraldeko turismo-xedea, merkataritza eta zerbitzuak bultzatzea.

Lurraldeko natura- eta kultura-ondarea defendatzea, eta horiei balioa ematea, zaintza aktiboko irizpideak izanen dituzten xedeak sortze aldera, lurraldearen geroa arriskuan jarri

Lurraldean gizartea eta ingurumena kudeatzeko, defendatzeko eta jasangarriak izateko laguntza ematea, foroetan (Agenda 21, kasu), lana adiskidetzeko tokiko itunetan, aukera-berdintasunekoetan tokiko lan-batzordeetan eta halakoetan parte hartuz.

Prestakuntza-, informazio- eta suspertze-ekintzak, tokiko herritarrei bideratuta.

Nafarroako Mendialdeko tokiko enplegu- eta garapen-agentziak eta ekintzailetzari eta enpleguari ematen dioten laguntza

Cederna Garalur Elkarteko tokiko enplegu- eta garapen-agentziek, elkartearen egiturarekin batera egiten duten lanaren zati izanik, eginkizun garrantzitsua betetzen dute Nafarroako Mendialdean enplegua sustatzen, TEGEek beren babesia ematen baitiete bai ekintzaileei enpresa berriak sortzen, bai landa-eremuetan ezarrita dauden negozioak finkatzen, berregituratzen eta bideragarritasuna ahalbidetzen ere.

Ekintzailetzari sostengua emateko zerbitzuak funtsean bost fasetan banatzen den prozesua jarraitzen du. Nolanahi ere, sustatzailearen ezaugarrien, prestakuntzaren, ideia ontzearen nahiz berariazko eskaeren arabera, prozedura horri ez zaio zertan jarraitu, ezta hasieratik ere.

1. FASEA SENTSIBILIZAZIOA DIBULGAZIOA

MOTIBAZIOA: ekintzailetzarekiko aldeko jarrerak sortu, edo ekintzaileak bideratu.
Izaera iraunkorra

2. FASEA IDEIAK ETA PROIEKTUAK SORTZEA

PROIEKZIOA:
Negozio ideia garatu.

3. FASEA PROIEKTUA GARATZEA

AHOLKULARITZA:
Enpresa-plana, negozioaren bideragarritasunaren analisisa.

4. FASEA ENPRESAK SORTZEA

AHOLKULARITZA:
Zerga- eta lan-aholkularitza, kontratuak, prestakuntza, izapideak...

5. FASEA SENDOTZEA JARRAIPENA

Diru-laguntzak lortu eta tramitatu; azoketan eta ekitaldietan orientazioa eman eta parte hartu; negozioaren jarraipena egin.

7. irudia. Cederna Garalur Elkartea. Enpresei bideratutako laguntza-zerbitzua. Faseak.

2013. urtean:

623 proiekturi erantzun diegu, eta horietatik % 40 (249 proiektu guztira) erakunde publikoek sustatu dituzte.

81 enpresari laguntza eman zaie sortzen eta martxan jartzen, edo merkatuan finkatzen.

125 lanpostu sortzen eta mantentzen lagundu dugu.

Enpresa-ekimenaren, prestakuntzaren eta enpleguaren arloarekin:

- Enpresei bideratutako 18 prestakuntza-ikastaro antolatzen lagundu dugu. Ikastaro horietan denetara 174 lagunek hartu zuten parte.

Turismo arloarekin lankidetzan

- Nafarroako Mendialdeko kalitate-planaren barnean, 144 proiekturi babesak eman zaie.

4.2 Nafarroako Mendialdea - LGP landa-garapenerako programaren jarraipena (LEADERen 4. ardatza, 2007-2013)

2013. urtean, Nafarroako Mendialdea – LGP 2007-2013 (Nafarroaren landa-garapenerako Leader-en 4. ardatza) programaren barnean, eta Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak finantzatuta, proiektuak diruz laguntzeko 3 deialdi ireki ziren. Bi deialdi horietara denetara 107 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 77 onartu ziren; % 33 proiektu produktiboak ziren. 4. taulak onartutako proiektuak jasotzen ditu xehetasunez.

Deialdia	Datak	Aurkeztutako proiektuak		Onartutako proiektuak	
		Produktiboak	Ez- produktiboak	Produktiboak	Ez- produktiboak
2013/1 Ez- produktiboak	Martxoa- maiatza	0	63	0	45
2013/2 Produktiboak	Martxoa- maiatza	28	0	23	0
2013/3	Azaroa- abendua	3	13	2	7
GUZTIRA		31	76	25	52


4. taula. Nafarroako Mendialdea - LGP (2007-2013, Leader-en 4. ardatza) programarako deialdia. Aurkeztutako eta onartutako proiektuen laburpena

	Onartutako inbertsioa guztira (€)	Emandako laguntza (€)	Inbertsioaren gaineko diru-laguntzaren ehunekoa
Proiektu produktiboak	2.826.884,27	764.148,97	27,03
Proiektu ez-produktiboak	1.713.996,92	899.103,77	52,46


5. taula. Onartutako inbertsioekiko eman dituzten laguntzen alderaketa, proiektuaren izaeraren arabera

Tokiko garapen-agentzia	Onartutako proiektuak			
	Produktiboak	Ez- produktiboak	Proiektuak guztira	Emandako laguntza guztira (€)
Esteribar - Erroibar- Aezkoa -Luzaide	6	7	13	383.444,20
Baztan - Urdazubi - Zugarramurdi	3	3	6	165.148,29
Bortzirriak - Malerreka - Bertizarana	4	7	11	195.312,84
Pirinioaurreko arroak	1	8	9	161.068,11
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	7	4	11	306.636,09
Erronkari - Zaraitzu	2	2	4	128.514,40
Sakana	0	11	11	98.634,04
Zangoza	2	6	8	175.950,77
Beste batzuk	0	4	4	48.544,04
GUZTIRA	25	52	77	1.663.252,78


6. taula. Proiektuak eskualdeka




1. grafikoa. Onartutako proiektu guztiak, eskualdeka




2. grafikoa. Emandako laguntza (€) eskualdeka



3. grafikoa. Ildo estrategikoaren arabera (lehiakortasuna, ingurumena eta bizi-kalitatea) onartutako proiektuen ehunekoa.



4. grafikoa. Alderaketa. Onartutako proiektuak, produktiboak eta ez-produktiboak, eskualdeka.



5. grafikoa. Alderaketa. Produktiboak eta ez-produktiboak diren proiektuei emandako laguntza eskualdeka.

7. taula. Nafarroako Mendialdea - LGP 2007-2013, Leader-en 4. ardatza. 2013an onartutako proiektuak

Eskualdeko garapen- agentzia	Herria / eskualdea	Onuradun- mota	Proiektuaren izena	Produktzio- orientazioa	Onartutako inbertsioa (€)	Emandako laguntza (€)
Baztan - Urdazubi - Zugarramurdi	Elizondo	Pribatua	Ardi latxaren gaztandegia, esneki artisauen salmenta-puntuarekin	Produktiboa	59.684,55	23.873,82
Baztan - Urdazubi - Zugarramurdi	Baztan	Publikoa	Aisiarako baratze ekologikoak Baztanen	Ez-produktiboa	8.055,55	5.638,89
Baztan - Urdazubi - Zugarramurdi	Urdazubi	Pribatua	Jatetxea Urdazubin	Produktiboa	131.469,24	39.440,77
Baztan - Urdazubi - Zugarramurdi	Irurita	Publikoa	Baztango hiltegia handitzea	Ez-produktiboa	45.764,02	32.034,81
Baztan - Urdazubi - Zugarramurdi	Urdazubi	Publikoa	San Salvatore monasterioko aroztegia birgaitzea	Ez-produktiboa	290.938,00	50.000,00
Baztan - Urdazubi - Zugarramurdi	Baztan	Pribatua	Erreportaje soziokulturalak Pirinioetako udalerrietan	Produktiboa	47.200,00	14.160,00
Bertizarana - Malerreka - Bortziriak	Bortziriak	Publikoa	Bidasoako natura-bidea seinaleztatzea	Ez-produktiboa	19.586,52	13.710,56
Bertizarana - Malerreka - Bortziriak	Doneztebe.	Pribatua	Arrandegia eta bestelako salgaietarako denda Donezteben	Produktiboa	30.030,40	9.009,12

Bertizarana - Malerreka - Bortziriak	Doneztebe.	Pribatua	Denda-ostatua Donezteben	Produktiboa	49.313,04	14.793,91
Bertizarana - Malerreka - Bortziriak	Ezkurra	Pribatua	Landa-aterpetxea Ezkurran	Produktiboa	36.305,12	10.891,54
Bertizarana - Malerreka - Bortziriak	Igantzi	Pribatua	'Irisarri jauregia' turismo-gunea Igantzin	Produktiboa	318.800,00	50.000,00
Bertizarana - Malerreka - Bortziriak	Doneztebe.	Publikoa	0-3 urteko haur-eskola egokitzea Donezteben	Ez-produktiboa	8.000,00	5.600,00
Bertizarana - Malerreka - Bortziriak	Beintza-Labaien	Publikoa	WIFI banda zabaleko sarera lotzea, Beintza-Labaien	Ez-produktiboa	21.179,00	14.825,30
Bertizarana - Malerreka - Bortziriak	Bortziriak	Publikoa	WIFI sarea Berako infuruetan	Ez-produktiboa	17.000,00	11.900,00
Bertizarana - Malerreka - Bortziriak	Ezkurra	Publikoa	Eskolak erabilera anitzeko eraikina izateko birgaitzea, Ezkurra	Ez-produktiboa	53.959,29	37.771,50
Bertizarana - Malerreka - Bortziriak	Doneztebe	Publikoa	Baliabideei eta ekonomia-jarduerei buruzko informazio-taulak, Malerreka	Ez-produktiboa	25.701,30	17.990,91
Bertizarana - Malerreka - Bortziriak	Bera	Publikoa	Organoetarako ikus-entzunezko gida, Bidasoa	Ez-produktiboa	12.600,00	8.820,00
Pirinioaurreko arroak	Itzagaondoa	Pribatua	Arrautza ekologikoak ekoiztea eta horiek sailkatzeko aretoa, Idoate	Produktiboa	102.604,12	25.000,00
Pirinioaurreko arroak	Agoitz	Publikoa	Garbigune zerbitzu mugikorra Agoitzen	Ez-produktiboa	26.575,63	14.820,49

Pirinioarreko arroak	Ilunberri	Publikoa	Eragimen energetikoa, Irunberriko ikastetxe publikoko berokuntza	Ez-produktiboa	7.150,00	5.005,00
Pirinioarreko arroak	Artzibar	Publikoa	Gizarte- eta kultura-etxea egokitzea Artzibarko udaletxean	Ez-produktiboa	11.712,12	8.198,48
Pirinioarreko arroak	Agoitz	Publikoa	"Aurelio Leon" prestakuntza-aretoa, Agoitz	Ez-produktiboa	14.184,34	9.929,04
Pirinioarreko arroak	Elo	Publikoa	"Enpresa haztegirako" lokala Elon	Ez-produktiboa	21.593,00	15.115,10
Pirinioarreko arroak	Lizoain	Publikoa	Lizoaingo gizarte- eta kultura-etxea	Ez-produktiboa	12.536,00	8.000,00
Pirinioarreko arroak	Erromantzatua (Domeñu)	Publikoa	Gizarte- eta kultura-etxerako lokala Domeñun	Ez-produktiboa	47.514,47	25.000,00
Pirinioarreko arroak	Uztarroze	Publikoa	Udalaren lokala erabilera anitzeko areto bihurtzeko, Uztarroze	Ez-produktiboa	84.781,19	50.000,00
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	Basaburua (Udabe)	Pribatua	Arrautza ekologikoak ekoiztea udaben	Produktiboa	67.730,00	25.000,00
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	Larraun (Etxarri)	Pribatua	Gozokiak eta marmeladak egiteko lantegia	Produktiboa	65.000,00	25.000,00
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	Basaburua (Jauntsarats)	Publikoa	Biomasako galdara instalatzea Jauntsarasko ikastetxe publikoan	Ez-produktiboa	22.739,75	15.917,83
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	Ultzama	Publikoa	Biomasa Ultzaman	Produktiboa	100.000,00	30.000,00
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	Goizueta	Pribatua	Esku-langintzako enpresako instalazioetan hobekuntzak	Produktiboa	142.175,39	42.652,62
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	Leitza	Pribatua	Loperena landa-ostatua Leitza	Produktiboa	200.000,00	50.000,00
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	Larraun (Aldatz)	Pribatua	Aplikazioak mugikorretan nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorean	Produktiboa	61.230,00	18.369,00
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	Ultzama (Lizaso)	Pribatua	Etxola esekietan ostatua sortzea, Ultzama	Produktiboa	173.223,14	50.000,00

Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	Ultzama	Publikoa	Turismoa antolatze eta garatzeko egitasmoa Ultzamana	Ez-produktiboa	27.130,00	18.991,00
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	Larraun	Publikoa	Plazaola natura-bideko Mugiroko tartea egokitzea	Ez-produktiboa	23.828,46	16.679,92
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	Leitza	Publikoa	Leitzan, Ibero dorrean eta burdinolan eskuhartze arkeologikoa	Ez-produktiboa	20.036,74	14.025,72
Esteribar-Eroibar-Aezkoa-Luzaide	Orreaga	Pribatua	Orreagako bazkalekuak berreskuratzea eta hobetzea	Ez-produktiboa	14.445,00	10.111,50
Esteribar-Eroibar-Aezkoa-Luzaide	Esteribar (Idoi)	Pribatua	Bertako barraskilo ekologikoa haztea Idoin	Produktiboa	51.363,63	20.545,45
Esteribar-Eroibar-Aezkoa-Luzaide	Aurizberri	Publikoa	Turismo-eskaintza sortzea, kultura- eta natura-ibilbide mistoak baliatuta	Ez-produktiboa	42.590,94	29.813,66
Esteribar-Eroibar-Aezkoa-Luzaide	Aribe	Publikoa	Biomasako galdara, Aezkoa Ibarreko Batzarra	Ez-produktiboa	47.974,09	30.000,00
Esteribar-Eroibar-Aezkoa-Luzaide	Auritz	Publikoa	Lindux mendiari balioa ematea, Auritz	Ez-produktiboa	42.000,00	29.400,00
Esteribar-Eroibar-Aezkoa-Luzaide	Orbaitzetako ola	Publikoa	Orbaitzetako munizioen fabriketan eskuhartze obra-zuzendaritza laguntza teknikoa	Ez-produktiboa	20.591,00	14.413,70

Esteribar-Eroibar-Aezkoa-Luzaide	Aurizberri	Publikoa	Jolas-eremua sortzea	Ez-produktiboa	109.551,24	44.772,85
Esteribar-Eroibar-Aezkoa-Luzaide	Esteribar (Zubiri)	Pribatua	Fisioterapia-zentroa Zubirin	Produktiboa	94.127,44	28.238,23
Esteribar-Eroibar-Aezkoa-Luzaide	Esteribar (Ilurdotz)	Pribatua	Etxegibel landetxeko baserri-turismoa Ilurdotzen	Produktiboa	51.481,40	15.444,42
Esteribar-Eroibar-Aezkoa-Luzaide	Luzaide	Pribatua	Arandegia jatetxea Luzaiden	Produktiboa	150.000,00	45.000,00
Esteribar-Eroibar-Aezkoa-Luzaide	Erro (Zilbeti)	Pribatua	Landetxea Zilbetin	Produktiboa	166.600,16	49.980,05
Esteribar-Eroibar-Aezkoa-Luzaide	Erro (Mezkiritz)	Pribatua	'Katrinka' aterpetxe tematikoa Mezkiritzen	Produktiboa	93.275,12	27.982,54
Esteribar-Eroibar-Aezkoa-Luzaide	Esteribar	Publikoa	Iturriak eta ikuztegiak zaharberritzea Esteribarren	Ez-produktiboa	73.891,28	37.741,80
Erronkari - Zaraitzu	Otsagabia	Publikoa	Ibaiko igerilekua egokitzea Otsagabin	Ez-produktiboa	38.405,86	26.884,10

Erronkari - Zaraitzu	Otsagabia	Publikoa	Zaharren egoitzaren kanpoaldea egokitzea Otsagabin	Ez-produktiboa	19.804,00	13.862,80
Erronkari - Zaraitzu	Izaba	Publikoa	Asolace kanpinean (Izaba) hobekuntza-lanak egitea	Produktiboa	144.612,57	43.383,77
Erronkari - Zaraitzu	Otsagabia	Publikoa	Udal-kanpina sortzea Otsagabin	Produktiboa	147.945,76	44.383,73
Sakana	Irurtzun	Publikoa	Nekazaritza ekologikoa erakusteko baratzea sortzea	Ez-produktiboa	10.500,00	7.350,00
Sakana	Arbizu	Pribatua	ETEen lehiakortasuna hobetzea Sakanan	Ez-produktiboa	31.760,00	22.232,00
Sakana	Lakuntza	Pribatua	Sakantzen Elkartean ekintzailatza dinamizatzea	Ez-produktiboa	15.500,00	10.850,00
Sakana	Lakuntza	Publikoa	Turismo-eskaintza zabaltzea Sakanan	Ez-produktiboa	6.300,00	4.410,00
Sakana	Altsasu	Publikoa	Interpretazio-ibilbidea 'Dantzaleku' hariztian	Ez-produktiboa	14.030,58	9.821,41
Sakana	Uharte Arakil	Publikoa	Argiztapena Uharte Arakilgo karabana-eremuan	Ez-produktiboa	10.569,00	7.398,30
Sakana	Lakuntza	Publikoa	Argindar- eta gas-hornikuntza Lakuntzako gizarte- eta kultura-etxean	Ez-produktiboa	11.017,62	7.712,33
Sakana	Sakanako udalerriak	Publikoa	Energia-ikuskapena Sakanako eraikin publikoetan	Ez-produktiboa	13.800,00	9.660,00
Sakana	Sakanako udalerriak	Publikoa	Sakanako gizarte- eta ekonomia-plan estrategikoa	Ez-produktiboa	12.000,00	8.400,00
Sakana	Arakil	Publikoa	Aixita gazteluan (Arakil) azterketa arkeologikoa	Ez-produktiboa	10.428,57	7.300,00
Sakana	Altsasu - Etxarri Aranatz	Publikoa	Baratze ekologikoen inguruko prestakuntza Sakanan	Ez-produktiboa	5.000,00	3.500,00
Zangoza	Zangoza (Rocaforte)	Publikoa	Done Jakueren bidean ingurumena leheneratzea, Rocaforte	Ez-produktiboa	9.198,00	578,78

Zangoza	Kaseda	Publikoa	Makaldiak mantentzeko makineria erostea	Produktiboa	27.500,00	11.000,00
Zangoza	Galipentzu	Publikoa	Galipentzuko turismo- eta arkeologia-ondarea babestea eta balioa ematea	Ez-produktiboa	5.200,00	3.640,00
Zangoza	Esa	Publikoa	Enpresa sustatzeko plana Esan	Ez-produktiboa	7.000,00	4.900,00
Zangoza	Zangoza	Pribatua	Erromesendako aterpetxea Zangozako kaputxinoen komentuan	Produktiboa	315.213,19	50.000,00
Zangoza	Zangoza	Publikoa	Lokala egokitzea haurrendako aisia-lekua izateko	Ez-produktiboa	115.906,94	50.000,00
Zangoza	Oibar	Publikoa	Eguneko arreta-zerbitzua emateko landa-zentroa eraikitzea Oibarren	Ez-produktiboa	126.268,20	50.000,00
Zangoza	Zare	Publikoa	Zareko Udaletxeko erabilera anitzeko aretoa hornitzea	Ez-produktiboa	8.331,42	5.831,99
Beste batzuk	Nafarroako Mendialdea	Pribatua	Merkaturatzeko bide laburrak sustatzea	Ez-produktiboa	35.733,52	25.000,00
Beste batzuk	Garalurren lurraldea	Pribatua	Basolanetan ikasten	Ez-produktiboa	7.493,38	5.245,37
Beste batzuk	Garalur eremua	Pribatua	Kalitate-zigiluaren inguruko diseinua eta plan-eragilea, eta mendi-ibili jasangarrian espezializatzea	Ez-produktiboa	10.800,00	7.560,00
Beste batzuk	Nafarroako Mendialdea	Pribatua	Tokiko hedabideen plataforma digitala	Ez-produktiboa	15.340,90	10.738,63

5. Cederna Garalur Elkartearen proiektuak

5.1 ITERA-AA: berrikuntza landa-eremuetako nekazaritzako elikagaien sektorean

ITERA-AA, "*Berrikuntza landa-lurraldeetan nekazaritzako, nekazaritzako elikagaien eta elikagaien enpresekin*", estatus gaindiko proiektua da, eta Europar Batasunaren baterako finantziazioa dauka, Interreg IVB SUDOE programaren bitartez. Proiektuan Espainiako, Frantziako eta Portugalgo 6 bazkidek hartzen dute parte. Programa 2012an onartu zen, eta 2014an bukatuko da. Aurrekontu globala 736.276 € da, eta zenbateko horretatik % 15 (112.978 €) Cederna Garalur Elkarteari dagokio.



Izenak berak erakusten du proiektuaren helburua landa-eremuetan nekazaritzako elikagaien sektorea sustatzea dela, berrikuntza baliatuta, hiru ikuspuntutatik abiatuta:



Europak gaur egun bizi duen ekonomia-krisiaren, gainproduktzioaren, eta ingurumenaren ikuspuntutik oso jasagarria ez den, eta gainera ohiko nekazaritza-ereduarekiko lehia desleiala den laborantza- eta transformazio-tekniken testuinguru honetan, nekazaritzako elikagaien sektoreak azkar batean egokitu beharra dauka, eta erronka horiei aurre egin behar die; horretarako, bestelako eskaintza sortu behar du, merkatuan izen propioa edukiko duena, eta produktuaren balio bereziak eta kalitatea nabarmenduko dituena. Halaber, produktua eskatuko duen kontsumitzaileari produktu

erakargarria eman behar dio, eta ekoizle txikiak eta kontsumitzaileak hurbilduko dituen merkaturatze-bide berriak bilatu behar ditu: "hurbiltasuneko bideak" edo "zirkuitu laburrak", nahiz Internet bidezko beste distribuzio-bideak bilatu.

Nafarroako Mendialdean, hainbat erakunde, eta enpresak beraiek ere, halako ekimenak martxan jartzen ari dira. Hori dela-eta, Cederna Garalur Elkarteak ulertu du bere lanak, hasieratik beretik, tokian tokikoa izan behar duela abiapuntu, lurraldeko premiak, eskaerak eta nekazaritzako elikagaien enpresen interesak.

Horregatik, 2013ko bigarren seihilekoan, elkarteak nekazaritzako elikagaien sektoreak Nafarroako Mendialdean bizi duen egoeraren diagnostikoa egin zuen, bai ekoizpenari zegokionez, bai merkaturatzeari zegokionez. "*Berritu merkatutik*" azterlana egiteko (2013ko azaroaren 25ean Larrainzarren aurkeztua), elkarrizketatutako 77 enpresaren laguntza jaso genuen; batetik, tokiko produktuak banaketa-bide laburretan merkaturatzeko ekimen berritzaileak ezagutzeko, eta produktuak beren zonaldeetan komertzializatzeko banaketa-bide horiek dituzten premiak ezagutzeko. Bestalde, produktuak Nafarroako Mendialdean komertzializatzeko proposamen zehatzak egitea, eta Nafarroako Mendialdearen lurralde-marka (bestelakoa eta bateratua) sortuz egon daitezkeen komertzializazio-bideak identifikatzea bilatu genuen.

NSG enpresak burutu zuen azterlan horren helburu nagusia zen banaketa- eta komertzializazio-bide berriak martxan jartzeko aukerak identifikatzea, eta eskaintza (ekoizleak) eta merkaturatzaileen eskaera harremanetan jartzea, baita beste eragile batzuek (partzuergoak, nekazaritzako sindikatuak eta dendarien elkarteak) ordurako martxan jarrita zeuzkaten proposamenak ezagutzea, sinergiak eta lankidetzarako bideak ezartze aldera; 2013an, bilerak egin dira NUPekin (*Nafarroako Unibertsitate Publikoa*), ICANekin (*Nafarroako Reyno Gourmet*), INTIArekin (*Nafarroako nekazaritzako elikagaien teknologien eta azpiegituren institutua*), eta NNPEKekin (*Nafarroako nekazaritza-produkzio ekologikoaren kontseilua*).



8. irudia. ITEERA-AA proiektua. Koordinazio-bilera Granadan. 2013ko iraila



9. irudia. 'Berritu merkatutik' izeneko azterlanaren aurkezpena Larraintzarren. 2013ko azaroa

Izan ere, 2014rako, Cederna Garalur Elkarteak Nafarroako Mendialdeko produktuak zirkuitu laburrean merkaturatzeko esperientzia pilotu bat martxan jartzea aurreikusi du. Esperientziaren izenburua da "*Marka bateratu bat sortzea Nafarroako Mendialdeko hainbat produktu Nafarroako txikizkako merkataritzan komertzializatzen*". Horrez gain, prestakuntza-tailerrak ere antolatuko dira, baita ekoizleen eta kontsumo-taldeen, ostalaritzako establezimenduen eta dendarien arteko topaketak ere.

2013. urteko emaitzak

Bazkideak:


- Bi koordinazio-bilera egin zituzten; urtarrilaren 23tik 25era Portugalen, eta irailaren 18tik 20ra Granadan.
- Proiektuaren web-orria martxan jarri zuten: www.itera-aa.com
- Proiektuari buruzko bi berripaper eman zituzten argitara; 2013ko urtarrilean eta abenduan (proiektuaren web-orrian eskuragarri).

Cederna Garalur:

- 77 elkarrizketa egin zizkien nekazaritzako elikagaien ekoizleei.
- 19 elkarrizketa egin zizkien nekazaritzako elikagaien banaketarekin eta komertzializazioarekin lotura duten elkarteei eta erakundeei.
- Nekazaritzako elikagaien sektorearen diagnostikoa egin zuen. "Berritu merkatutik" izeneko azterlana Cederna Garalur Elkartearen web-orrian eman genuen argitara.
- Azterlanaren aurkezpena egin zitzaion ekoizleei Larraintzarren (Ultzama) egindako bilera batean, 2013ko azaroan.



10. irudia. "Berritu merkatutik" azterlanaren ondorioak



6. grafikoa. 'Berritu merkatutik' izeneko azterlana. Nekazaritzako elikagai-enpresei egindako inkestak, eskualdeka. Zangozako eskualdeari dagokionez, soilik Zangoza, Rocaforte, Esa eta Gabarderal hartu dira kontuan.

'Berritu merkatutik' izeneko azterlana.

Azterlanean parte hartu duten erakundeak


Agroturana – Fundagro	Nafarroako harakinen gremioa
Erronkariko Landetxeen Elkarte	INTIA – Nafarroako nekazaritzako elikagaien teknologien eta azpiegituren institutua
Nafarroako ostalaritza-elkartea	Karrakela – Ekoizleen denda. Produktu ekologikoak eta kalitatekoak
Nafarroako sagardogileen elkarte	Hemeneus
ANAPEH – Nafarroako ostalaritza-enpresa txikien elkarte	Landare- Produktu ekologikoen kontsumitzaileen elkarte
Bertizko Partzuergoa – 'Hiruak Bat' landetxeen elkarte	Iruñeko Zabalguneko merkatua
Coto Valdorba	Ermitagañako merkatua
NNPEK – Nafarroako nekazaritza-produkzio ekologikoaren Kontseilua	Santo Domingoko merkatua
EHNE – 'Bizilur' kontsumo-taldea	Tomate Gorriak - Kontsumo-taldea
EI Almazan – Sumaconcausa	



11. irudia. Itera-aa proiektuko web-orriaren irudia, www.itera-aa.com

5.2 BASOLAN


"BASOLAN: natura-baliabideak aprobetxatzea" izeneko proiektua estuki loturik dago Nafarroako Mendialdeko baliabide endogeno nagusienetako batekin: Basoarekin, hain zuzen ere. BASOLAN proiektuaren asmoa da basoen ustiapen jasangarria egitea (ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspuntutik), ikuspegi integral batetik, eta aukera guztiak baliatuta: biomasarako lehengaia; zura eraikuntzarako nahiz manufakturaziorako erabiltzea; eta turismo-baliabide gisa, zehazki espezie enblematiko bati, haritz atlantikoari, balioa emanez, ugaria baita Nafarroan.



2014an zehar landuko den BASOLAN proiektuak 63.000 €-ko proiektu globala dauka, eta Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren finantziazioa dauka, 'Nafarroako Mendialdea' LGP 2007-2013 programako Leader-en 4. ardatzaren bitartez. Helburu nagusien artean daude:


- Herritarrak sentsibilizatzea zur ziurtatua eta baso-biomasa energiarako erabiltzearen inguruan.
- Baso-baliabidea mobilizatzea eta baso-jabe diren toki-erakundeei aukera ematea salmentarako esparru-akordioak ezartzeko erabakiak har ditzaten.
- Baso-sektorearekin lotura izan dezaketen enpresa-proiektuak identifikatzea, eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustatzea, biomasa, bestelako energia-iturriekin alderatuta, energia-iturri jasangarri eta ekonomiko gisa erabiltzea zabaltzea.
- Turismo-produktu berritzailea garatzea, Nafarroako Mendialdeko basoen izaera bereziari balioa emanez, ekonomia-jarduera berriak finkatzea eta sortzea ahalbidetze aldera, landa-eremuetan aberastasuna sortuz; horretarako, paisaia- eta kultura-baliabideak, eta ohiko jardunak erabilia.

Proiektuaren garapenak hiru fase nagusi ditu:



Proiektua burutzeko, EKILAN SL enpresaren laguntza teknikoa dugu, baso-sektorearen diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko. Halaber, LUR GEROA enpresaren laguntza dugu, turismo-produktua garatzeko.

2013an zehar, baso-sektoreak izan dezakeen eskaintzaren eta eskaeraren diagnostikoa egiten hasi ziren. Deskribapen-fitxen bidez, biomasarekin lotura duten ehun bat eragile identifikatu eta ezaugarritu zituzten: jabeak (nagusiki, erakunde publikoak), zuraren arloko elkarteak, instalaziogileak, eta abar.



12. irudia. BASOLAN proiektua. Eskaintzaren eta eskaeraren diagnostikoa. Ezkerretara: ekoizpen-eremuen mapa; eskuinetara, berriz, baso-espezieak.

Halaber, biomasako berokuntza-instalazioen jarduera onen inbentarioa lantzen hasiak dira. Lehenengo blokean bost aztergai izan dira: Ultzamako Udala, eta bertan egindako biomasa-instalazioa; Beran eta Lesakan martxan diren instalazioak handitzeko bi

proiektu; eta proiektu-fasean dauden hainbat kasu Elizondon, Bizkarretan, Arbizun eta Erroibarren (instalazioen amortizazio-aurreikuspenak barne).



Bestalde, Cederna Garalur Elkarteak biomasako "logistika-guneen" sare bat egituratzeko lantaldea jarri du martxan. Gune horiek biltegia, eta lehortze- eta banaketa-instalazioak izanen dira, baita erakunde publikoena den biomasarako egurra ezpal bihurtzeko ere. Helburu bikoitza du BASOLAN proiektuaren barnean kokatzen den ekintza horrek:

- Batetik, Nafarroako Mendialdean estrategikoki kokatuta egonen den instalazioen edo guneen sare bat egituratzea: batetik, hainbat udalerrik duten biomasasoberakinaren biltegia izan daitezen, eta bestetik, aipatu lehengaia eskatzen duten beste instalazio publikoei nahiz pribatuei banatzea erraztea.
- Bestalde, titularitate publikoa duten instalazioetan baso-baliabide hori erabiltzea bultzatzea, Nafarroako Mendialdeko erakunde publikoek baso-jatorriko biomasasalerosteko hitzarmena sinatuta; horretarako, biomasaren prezioa egonkortuta, eta baliabidea saltzeko eta banatzeko berme onuragarriak emanda.

2013an zehar, lantaldeak lau bilera egin ditu.

Horrez gain, Cederna Garalur Elkarteak, LUR GEROA enpresaren laguntza teknikoarekin, "ARITZ" ekimena lantzen ari da, horren asmoa izanik haritz atlantikoa ardatz duen turismo-produktua garatzea. Haritz atlantikoa espezie enblematikoa Nafarroan, eta Foru Erkidegoaren iparrean eremu zabaleko hariztiak daude. Historian zehar, haritzak, eta zehazki haritz atlantikoak, oso lotura estua izan du gizakion jardunarekin; eraikuntzan eta ontzigintzan, abeltzaintzan (larreetan itxiturak egiteko), upelgintzan, eta kulturaren eta usadioetan. Horrez gain, paisaia-balio handia du, eta bertako herritarrek bereziki zaintzen dituzte hariztiak. Kontuan hartuta zenbait enpresak eta turismo-zerbitzuek dagoeneko jaso dituztela haien zerbitzu-eskaintzan hariztia eta horri loturiko beste baliabide batzuk (naturaren interpretazioa, mendi-ibiliak eta mikologia, besteak beste), ARITZ proiektuaren asmoa da Nafarroako Mendialdean halako jarduerak koordinatzea, eta horretan parte diren eragileak (tokiko eta eskualdeko erakunde publikoak, turismo-zerbitzuetako enpresak, ostatuak eta

jatetxeak) tartean sartzea, haritza atlantikoari eta horrek gizakiarekin duen loturari balioa ematearen inguruan aberastasuna eta enplegua ekarriko duen turismo-produktua finkatuz.

2013ko abenduan, proiektuaren berri emateko lehenengo bilera egin zen Ariben. Bileran 14 lagunek hartu zuten parte, eta "Haritzaren mahaia" eratu zen. Mahai horrek hartuko du bere gain ARITZ proiektuaren jarraipena. Lantaldea 15 kidek osatzen dute, Nafarroako Mendialdeko udalerrietakoak, Nafarroako Gobernuko ordezkariak, turismo-entresak eta Cederna Garalur Elkarteko ordezkariak. Haritzaren mahaiak 2014an beste bi bilera, gutxienez, egingen ditu, eta ARITZ proiektua martxan jartzeko lan-egitasmoa onartzea aurreikusi da.



13. irudia. ARITZ proiektua. Aurkezpen-ekitaldia Ariben. Ezkerretara, proiektuaren aurkezpenean. Eskuinetara, Ariztokiara egindako bisita.

2013. urtean:

- Bi laguntza tekniko kontratatu ziren baso kudeaketari eta ARITZ turismo-produktuaren inguruko ekimenak martxan jartzeko.
- Biomasurekin lotura duten 100 eragile identifikatu ziren: jabeak, zur-enpresak, eta bestelakoak.
- Biomasuren berokuntza-instalazioak martxan jartzearen inguruan hainbat jarduerak on identifikatu ziren.
- Logistika-guneen lantaldea eratu zen, eta lau lan-bilera egin ziren.
- ARITZ proiektuaren atariko txostena aurkeztu zen, eta aurkezpen-bilera bat egin zen.
- Haritzaren mahaia eratu zen, ARITZ izeneko turismo-produktuaren jarraipena egiten duena.



14. irudia. ARITZ proiektuaren aurkezpena Ariben. Bisita Aribeko zaldainera.

5.3 Gure bideetan barrena

"Gure bideetatik" Cederna Garalur Elkartearen eta Nafarroako Erdialdearen garapenerako elkartearen arteko lankidetzaren proiektua da. Bi urteko iraupena du, 2014. urteko erdialdera arte. Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren finantziakoa da, 2007-2013 epealdirako Landa Garapenerako Programako (LGP) Leader-en 4. ardatzaren bitartez. Aurrekontu globala 141.508,46 € da, eta horretatik 98.095,32 € Cederna Garalur Elkarteari dagokio.



15. irudia. "Gure bideetatik" proiektuko koordinazio-bilera. Iturria: Diario de Navarra

Landa-eremuetan herriak lortzen zituzten makina bat bide daude, eta horien inguruan sortu zen lankidetzaren proiektua. Azkenaldi honetan tokiko ekimenek sustatuta leheneratzen eta mantentzen ari diren sare horiei kirolerako bideak (bizikletan, zaldiz, nahiz mendi-ibiliak), abeltzainek erabiltzen dituzten bideak (abelbideak), basogintzan erabiltzen direnak, eta natura-bide bihurtutako garai bateko trenbideak (Plazaola natura-bidea, kasurako), bide historikoak (Done Jakueren bidea, kasurako) gehitu behar zaizkie, besteak beste.

Testuinguru horretan, bideen sareak berreskuratzeko eta horiei balioa emateko Cederna Garalur Elkartea eta Nafarroako Erdialdea lantzen ari diren lankidetzaren baliagarria izan daiteke Nafarroako Mendialdeak eta Nafarroako Erdialdeak dituzten premia komunei erantzuteko.

Herrien arteko barneko mugikortasuna eta irisgarritasuna

Alegia, herriak elkarrekin lotzea motordun ibilgailuentzat ez diren bideen bitartez.



Turismoa

Bisitariari bestelako turismo-eskaintza ematea, tokian tokiko ohiko baliabideetan oinarritutakoa, eta lurraldean murgiltzea ahalbidetzea.



BIDEAK

Proiektuak 3 fase ditu: Egun dauden bideak ikertu, analizatu eta aztertu edo komunikazio-bideak hobetu; sentsibilizazio- eta parte hartzeko fasea; eta azkena, bideen sareei balioa ematea promozio-ekintzen bidez.



2013an, Cederna Garalur Elkarteak honako ekintza hauek burutu zituen:

I. fasea:

- Nafarroako Mendialdeko bideen oinarritzko inbentarioa landu. LUR GEROAREN laguntza teknikoarekin, denetara 62 populazio-gune elkartzen dituzten 80 bide identifikatu dira 7 udalerritan. Sareak, denetara, 194 km ditu.
- Bide horiei dagokienez, aurrera begira 5 udalerritan egingen diren 29 tarteren esku-hartzerako deskribapen-fitxak landu dira; horrek esan nahi du 38 populazio-gune elkartuko dituen 118 km-ko bide-sarea (hainbat tartetan banaturik).
- Plazaolaren natura-bidea: Udalaz gaindiko Plan Sektorialeko (UPS) ukipenen eta desjabetzeen balorazioa egin zen, Plazaolaren Iruñetik Irurtzunerako tarte leheneratzeko. Horretarako, *Tasaciones y Consultores SL* enpresaren laguntza teknikoa jaso genuen.

- Bidasoaren natura-bidea: *Paymacotas SAU* enpresari Bidasoaren eta Plazaolaren natura-bideak lortzeko ingeniaritza-proiektua enkargatu zitzaion.
- Iratiren natura-bidea: Lizoain eta Zangoza arteko Iratiren natura-bidearen UPS kudeatu eta bideratu zen. Laguntza teknikoa *3G Arquitectos* enpresa izan da.
- Zortzi partaidetza-bilera egin ziren Iratiren natura-bidearen UPSren proiektua aurkezteko.

II. fasea:

- Hiru sentsibilizazio-ekintza burutu ziren.
- Urrotz Hirian "*Ferrocarril el Irati. Historia y documentos*" ("Irati tren. Historia eta agiriak") liburua aurkeztu zuten, eta 14 lagunek hartu zuten parte.
- Herri horretan bertan, "*Caminos de mercado*" ("Azoka-bideak") izenburupean hitzaldi eman zuten, eta 20 lagunek hartu zuten parte.
- Topaketa bat antolatu zen: "*Día de los senderos de Imotz*" ("Imozko bidezidorren eguna").
- Nafarroako Erdialdearen garapenerako elkartearekin lankidetzan, 2013an "Gasna eta ardoa, bidelagun" lehiaketa jarri genuen martxan, Facebooken bitartez landutako aztarna bidezko jolas bat. Partaideek Nafarroako Mendialdea eta Nafarroako Erdialdea lotzen zituen erronkariarren abelbidean zehar jarritako 7 aztarna ebatzi behar zituzten .

III. fasea:

- "*Por nuestros caminos de la Montaña de Navarra*" ("Nafarroako Mendialdeko gure bideetan barrena") bideoa editatu zen. Bideoa Youtuben dago ikusgai: <http://www.youtube.com/watch?v=tL5VathCC9Q>
- Orrez gain, Nafarroako Erdialdearen garapenerako elkartearen proiektuaren webguneaz (<http://pornuestroscaminos.info>) arduratu da, baita "Gasna eta ardoa, bidelagun" lehiaketa Facebooken bitartez girotzeaz ere (<http://www.facebook.com/caminosbideak>).

	Adierazlea
Identifikatutako eta trakeatutako eta fitxen bidez deskribatutako bideak	50
Bilera parte-hartzaileak	7
Herritarrak sentsibilizatzea	2
Elkarrekin landutako ekintzak	1

7. taula. "Gure bideetan barrena" proiektuko gauzatze-mailaren adierazleak.

Udalerrria	Herriguneak	Identifikatutako bideak	Luzera (km)	Deskribapen-fitxa
Aezkoa	4	4	25,35	Bai
Basaburua	12	14	40,7	Bai
Ultzama	17	19	43	
Anue	7	11	33	
Imotz	8	8	19	Bai
Erroibar	5	3	13,6	Bai
Odieta	8	10	19,7	Bai
GUZTIRA	61	69	194,35	
GUZTIRA (fitxaduna)	37	39	118,35	

8. taula. Hainbat erabilera duten eta identifikatu diren tokiko bien deskribapena.

Fasea	Ekintza	Data	Non	Parte hartu duten pertsonak
I fasea	Iratiren natura-bidea berreskuratzeko UPSri egindako proposamenen azalpena eta analisisa.	Urriaren 31a	Urrotz Hiria	4
		Azaroaren 5a	Longida	6
		Azaroaren 8a	Ilunberri	20
		Azaroaren 12a	Zangoza	15
		Azaroaren 13a	Agoitz	24
		Abenduaren 12a	Baztan (Bertiz)	12
		Abenduaren 17a	Erroibar	4
	GUZTIRA			85
II. fasea	Imozko bidezidorren egun	Irailaren 29a	Imotz	100
	"Ferrocarri el Irati:	Urriaren 25a	Urrotz Hiria	14

historia y documentos" liburuaren aurkezpena			
"Camino de mercado" hitzaldia	Azaroaren 16a	Urrotz Hiria	20
"Gasna eta ardoa, bidelagun" Gymkhana	2014ko abendua - urtarrila	Erronkariarren abelbidean zehar	
GUZTIRA			134

9. taula. "Gure bideetan barrena" proiektuaren barnean burututako ekintzak eta partaidetza- adierazleak.



16. irudia. "Gasna eta ardoa, bidelagun" lehiaketa Ezkerretara, lehiaketaren irabazleak. Eskuinetara, lehiaketaren Facebook kanala "<http://www.facebook.com/caminosbideak>"



17. irudia. Iratiren natura-bidea Ibilbidearen eta zeharkatzen dituen udalerrien bista.



18. irudia. Identifikatutako bide-sarea. Ezkerretara: Imotz eta Basaburua. Eskuinetara: Aezkoa eta Erro



19. irudia. "Gure bideetan barrena" bideoaren bistak (Youtuben ikusgai).

5.4. “Ekintzailetzarako prestakuntza”. Prestakuntza-programa enpresa txikientzat

Cederna Garalur Elkarteak Nafarroako Mendialdeko enpresei eta ekintzaileei ematen dien zerbitzuen artean prestakuntza izan da gehien azpimarratu duen alderdietako bat; izan ere, eta 3. kapituluan aipatutakoari helduz, tokiko ekintzailetza eta negozioen finkatzea ezinbestekoak dira landa-eremuen gizartearen biziraupenerako. 2013ko prestakuntza proiektuari "Enpresa-ekimenerako prestatzen" deitu genion. Prestakuntza-ekintza bat izan zen eta helburu zituen martxan zeuden enpresak merkatuan finkatzea eta hobetzea, enplegua bilatzen laguntzea, negozio-aukera berriak sortzea, eta hori guztia eskualdeetako baliabide propioen kudeaketa hobetuz. Hori dela-eta, programa zuzendu zitzaien ez soilik finkatze-fase aktiboan dauden enpresei, baita beren negozioa dibertsifikatuz berriro asmo dutenei, negozio-ideia bat duten pertsoneri, enplegua aktiboki bilatzen duten pertsoneri, eta tokiko biztanleriari eta toki erakundeei ere, lurralde bakoitzeko baliabideak eta jarduna komertzialki, modu errentagarrian eta jasagarrian nola ustiatu ezagutzera eman eta erakuste aldera.

Enpresa txikiei bideratutako prestakuntza-programako berrikuntza ekarri zuten helburuetako batzuk honako hauek dira:

- Gure toki-baliabideak aprobetxatzea bultzatzea, dibertsifikazioa bultzatzeko eta enplegua sortzeko.
- Toki-erakundeei, taldeei, enpresei eta, oro har, herritar guztiei babesa ematea ezagutzak jaso ditzaten, eta haien baliabideak kudea ditzaten.
- Hainbat sektoreri prestakuntza espezializatua ematea, negozioen kudeaketa hobetzeko, eta, hartara, negozio horiek mantentzeko.
- Enpresa-ekimenerako esperientzia eta formula berriak aurkeztea.
- Prestakuntza-programa horien bitartez, enpresa-ekimenerako ildo berriak ematea.

Enpresei bideratutako prestakuntza-programa 2013ko bigarren sei hilekoan garatu zen. Hilabete horietan:

- 22 ikastaro programatu ziren.
- 18 ikastaro antolatu ziren Nafarroako Mendialdeko 12 udalerritan.
- 123 prestakuntza-ekintza eman dira denetara.
- 181 lagunek burutu dute prestakuntza, izena eman zutenetatik % 83,7k.

- Prestakuntza burutu zutenetatik, % 57,45 emakumeak ziren (107) eta % 42,54 gizonak (77).

Ondorengo taulek proiektuaren mugarrak laburbiltzen dituzte.


	Programatutako ikastaroak	Egindako ikastaroak	Ikastaro-orduak	Udalerriak
Alfabetatze digitala enplegua aktiboki bilatzeko	10	8	22	8
Autoempléate, zeuretzat lan egin	5	4	6	4
Sormena zure enpresan Berritu merkatutik	1	0	0	0
Zuzeneko salmenta: produktuak, araudia eta salmenta	1	1	25	1
Mikologia eta landa-garapena	1	1	32	1
Abeltzaintzako produkzioa larreetan eta bazkan oinarrituta	1	1	32	1
Nahasmendua nagusi den garaietan saltzea	3	3	6	3
GUZTIRA	22	18	123	

10. taula. Enpresentzako prestakuntza-programa. Emandako ikastaroen laburpena.


	Izena emandakoak		Ikastaroa bukatu zutenak	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Alfabetatze digitala enplegua aktiboki bilatzeko	34	40	30	34
Autoempléate, zeuretzat lan egin	19	34	16	25
Zuzeneko salmenta: produktuak, araudia eta salmenta	4	6	3	6
Mikologia eta landa-garapena	16	6	13	6
Abeltzaintzako produkzioa larreetan eta bazkan oinarrituta	11	4	6	3
Nahasmendua nagusi den garaietan saltzea	10	32	9	30
GUZTIRA	94	132	77	104

11. taula. Enpresentzako prestakuntza-programa. Ikastaroetan parte hartutakoak.


Enpresentzako prestakuntza-programa Nafarroako Gobernua eta Europar Batasunak finantzatu zuten oso-osorik 'Nafarroako Mendialdea' 2007-2013 epealdirako Landa Garapenerako Programako (LGP) Leader-en 4. ardatzaren bitartez.



6. grafikoa. Enpresentzako prestakuntza-programa. Prestakuntzan parte hartu duten gizonen eta emakumeen arteko alderaketa.



7. grafikoa. Enpresentzako prestakuntza-programa. Izena eman zutenen eta prestakuntza burutu zutenen arteko alderaketa.



19. irudia. Enpresentzako prestakuntza-programa. Baliabideak lokalizatzea.



20. irudia. Alfabetatze digitaleko ikastaroa. Doneztebe..

5.5. ERNE, "Ideiatik merkatura"

Cederna Garalur Elkartek enpresei eta ekintzaileei babesa emateko duen zerbitzuak bi zutabe ditu: prestakuntza espezializatua (aurreko atalean jasotakoaren arabera), eta ekintzailtzari eta enplegua hobetzeari babesa emateko ekimenak. 2013an, Cederna Garalur Elkartek, azken horri dagokionez, Nafarroako Mendialdeko herritarren artean "ekintzailtzarako kultura" zabaltzea bultzatu du nagusiki; alegia, negozio-aukeren inguruko interesa piztea, eta enpresa finantzatzeko modu berriak azaltzea, enpresen eta/edo ekintzaileen arteko lankidetzak sustatuz, eta, azkenik, negozioen bideragarritasunean laguntza emanez. Proiektuak, enpresa sortu berriei edo finkatze-fasean daudenei ere bideratuta, arreta berezia eman zien gazteei (16 eta 25 urte bitartekoak), beraiek izanen baitira Nafarroako Mendialdeko etorkizuneko enpresaburuak. Halaber, arreta berezia eman zitzaion publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzari.

Espezifikoki, ERNE proiektuak honako helburuak dauzka:

- Gaur egun LH eta Batxilergoa ikasten ari diren tokiko gazteen artean enpresa-kulturaren balioak sustatzea.
- Nafarroako Mendialdeko gazte unibertsitarioen mendialdearen etorkizun ekonomikoarekiko inplikazioa areagotzea.
- Nafarroako Mendialdeko ekintzaileak izan daitezkeenei enpresa finantzatzeko tresna berriak hurbildu: business angels sareak, crowdfunding, mikro kredituak...
- Ekintzaileen eta gaur gero merkatuan dauden enpresen artean eta elkarrekin konfiantzazko sareak ezartzea.
- Tokiko baliabideekin lotura izanen duten negozio berriak martxan jartzeari babesa ematea.

ERNE proiektuak hiru fase ditu:

I. FASEA
SENTSIBILIZAZIOA
“ETORKIZUNeko IDEIAK”

- Topaketakl gazte ekintzaileekin.
- Lehiaketa: “etorkizuneko ideiak”

2. FASEA
EKINTZAILETZAREN
KOMUNITATEA
“IDEIATIK EKINTZARA”

- Proiektu-ideiak identifikatu eta aukeratu
- Proiektuak eraiki eta bizkortu

3. FASEA
EKINTZAILETZARAKO
TRESNAK

- Gaitzea (gizarte-ekonomia, coaching, proiektuak bizkortzea)
- Proiektuak finantzatzeko formulak


"Ideiatik merkatura" izeneko ERNE proiektua Nafarroako Gobernua eta Europar Batasunak finantzatu zuten 'Nafarroako Mendialdea' 2007-2013 epealdirako Landa Garapenerako Programako (LGP) Leader-en 4. ardatzaren bitartez. Aurrekontu globala 52.000 € da, eta horretatik 27.000 € 2013. urtearidagokio.



21. irudia. Ekintzaileen Kedada. Altsasu. 2013ko ekainaren 19a

2013. urtean zehar:

- Ekintzaileen 'KEDADA' bat antolatu zen, eta horretan 80 lagunek hartu zuten parte.
- Bi tailer burutu ziren, ikasleei bideratuta, eta horietan 74 lagunek hartu zuten parte.
- Ekintzailetzaren inguruan bi mahai antolatu ziren, eta horietan 10 enpresa-proiektu berri identifikatu ziren.
- "CANVAS" tailer bat antolatu zen (negozia bizkortzeko eredu), eta 14 lagunek hartu zuten parte.
- Enpresentzako finantziazio-aukerei buruzko bi jardunaldi antolatu ziren, eta 49 lagunek hartu zuten parte.
- Hiru negozio-idea berriri eman zitzaien aholkua, 4 proiekturi finantziazioa bilatzeko aholkua eman zitzaien, eta 5 proiekturi enpresa-plana burutzen lagundu zitzaien.



22. irudia. CANVAS ereduaren inguruko tailerra. Antsoain. Proiektu-eredua.

I. fasea. Sentsibilizazioa. "Geroa izanen duten ideiak"

Ekintza	Jarduera	Lekua eta eguna	Partaideak
Topaketa gazte ekintzaileekin	Ekintzaileen Kedada.	Altsasu. 2013ko ekainaren 19a	80
	Ekintzailtzarantz sentsibilizatzeko tailerra	Lekaroz BHI (Baztan). Urriaren 14a	14
		Altsasu BHI. Abenduaren 12a	60

II. fasea. "IDEIATIK EKINTZARA" EKINTZAILETZA

Ekintza	Jarduera	Lekua eta eguna	Adierazleak
Negozio-ideiak identifikatu / aukeratu	Ekintzailtzari buruzko 1. mahaia	Baztan-Bidasoa Urriaren 24a Ultzama. Abenduaren 19a	Bi saio. Identifikatutako 10 proiektu
Proiektuen azkartzea			Aholkua hiru proiekturi

III. FASEA: EKINTZAILETZARAKO TRESNAK

Ekintza	Jarduera	Lekua eta eguna	Adierazleak
Ekintzaileak gaitu	CANVAS tailerra	Antsoain. Urriaren 31a	Tailer bat. 5 enpresa-plan.
Finantzatzeko formula berriak	"Enpresentzako finantziatio-aukerak" tailerra	Lesaka. Azaroaren 19a	17 parte-hartzaile
		Agoitz Abenduaren 12a	32 parte-hartzaile
	Business angels		Aholkua lau proiekturi

12. taula. ERNE proiektua. 2013an zehar burututako ekintza nagusiak eta adierazleak.

5.6. Kalitatea turismoan

Turismo-zerbitzuak dira Nafarroako Mendialdeko eragile ekonomikoetako bat, eta Cederna Garalur Elkarteak arreta berezia ematen dio kalitatean oinarritutako turismo-sektorea sendotzeari. Honako hauek dira Cederna Garalur Elkarteak turismo-sektoreari ematen dizkion zerbitzuak: kalitateko zerbitzu espezializatuak (xedeko kalitate-plana eta kalitatearen Q ziurtagiria); turismo-sektorerara bideratutako prestakuntza; Nafarroako Mendialdean turismoarekin lotura duten proiektuak martxan jartzea; eta arreta sustatzaile publikoei eta pribatuei. Hori guztia "Nafarroako Mendialdea" turismo-mahaiaren bitartez koordinatzen da.

“Nafarroako Mendialdea” kalitate-mahaia

Nafarroako Mendialdeko turismo-mahaia gure lurraldean turismoarekin lotura duten sektore ekonomiko eta zerbitzu publiko guztiek hartzen dute parte, Nafarroako Mendialdearen kalitatea, turismo-xede gisa, hobetzea helburu hartuta, horretarako Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen duen "SICTED" Xedeko kalitate integralerako kudeaketa-eredua baliatuz. Horrela, honako hauek hartzen dute parte kalitate-mahaiari: Cederna Garalur Elkarteak (koordinatzailea); Nafarroako Gobernuko Kultura, Turismo eta erakundeen arteko Harremanetarako Departamentuko ordezkariak; Nafarroako Mendialdeko alkateak; Ibarretako Batzarretako ordezkariak; Nafarroako Landa Hotelen Elkarteak; eta Bertizko eta Plazaolako Turismo Partzuergoak.

2013an, kalitate-mahaia bitan batzartu zen, maiatzean eta azaroan. Bi bilera horietan, jarduera onen eskuliburuak ebaluatzeko 63 txosten aurkeztu eta onartu ziren; 21 maiatzekoan, eta 42 azarokoan. Horrez gain, kalitate-mahaiko partaideek helburu jarri dute erakunde hori bultzatzea Nafarroako Mendialdean estrategiak zehazterakoan eta ekintzei lehentasuna ematerakoan topaketarako, eztabaidarako eta solaskidetzarako eragile gisa, Cederna Garalur Elkarteak turismo-sektoreari ematen dion sostengua abiapuntu hartuta, eta sektore horrek gaur egun bizi duen egoera aintzat hartuta.

“Nafarroako Mendialdea” xedeko kalitate-plana eta kalitate-sistemak



Compromiso | Kompromisoa
de Calidad Turística | Kalitate Turistikoarekin

Planaren helburua da Nafarroako Mendialdearen kalitatea turismo-xede gisa hobetzea. Planaren organo kudeatzailea Cederna Garalur Elkartea da. Xedeko kalitate-plana, teknikoki SICTED gisa ezaguna (Xedeko Turismo Kalitaterako Sistema Integrala), Nafarroako Gobernuak (Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua) finantzatu du ehuneko hirurogei ta hamarreen, eta Espainiako Gobernuako Turismo Idazkaritzak bultzatu du, Espainiako Turismo Institutuaren (TURESPAÑA) eta FEMPen bidez.

Cederna Garalur Elkartek koordinatzen du plana, bera ere erakunde kudeatzaileko ('Kalitate Batzordea') partaidea izanik. Aipatu batzordean honako hauek hartzen dute parte: Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko bi ordezkariak, Cederna Garalur Elkartearen zuzendaritza-batzordeko hamalau ordezkariak, Nafarroako turismo-erakundeetako bi ordezkariak, 'Nafarroako Mendialdea' xedeko turismo-partzuergoetako bi ordezkariak, eta jarduera-eremuaren barnean dauden eta turismoa garatzen jardunbide frogatua duten udaletako hiru ordezkariak.

Plan horrek, funtsean, bi jarduera-ardatz jasotzen ditu: jarduera onen eskuliburuak (JOE) ezartzea eta prestakuntza.

2013. urtean:

- 23 establezimenduk egiten zuten bat xedeko kalitate-planarekin.
- 144 laguntza tekniko eman ziren, eta Nafarroako Mendialdeko 63 establezimenduk lortu zuten jarduera onen eskuliburuaren bereizgarria.
- 68 turismo-establezimenduk osatu dute SICTEDen prestakuntza-programa.
- Xedeko kalitate-planaren inguruan bi aurkezpen-bilera egin ziren, Zugarramurdin eta Izaban, eta 30 lagunek hartu zuten parte.

Nafarroako Landa Hotelen Elkartek eta BIDEAK Elkartek (Nafarroako turismo-jarduerako enpresen elkartea) erakutsi zuten jarduera onen eskuliburuak ezartzeko interesa, eta horretarako prozesua beharrezkoak diren baldintzak azaldu genizkien.

Tokiko garapen-agentzia	Laguntzak	JOE (*) ezaugarriak	Prestakuntza jaso duten establezimend.
Pirinioaurreko arroak	12	6	7
Baztan - Urdazubi -Zugarramurdi	42	18	17
Zangoza	6	2	2
Esteribar/Aezkoa/Erroibar	13	2	4
Sakana	3	2	2
Mendialdea - Leitzarain - Ultzama	17	14	17
Malerreka- Bertizarana- Bortziriak	17	13	11
Erronkari / Zaraitzu	16	5	6
Beste batzuk	18	1	2
Guztira	144	63	68

(*) Jarduera Onen Eskuliburuak

Espainiako turismo-kalitaterako sistema (Q) zabaltzeko laguntza teknikoa

Espainiako Turismo Kalitaterako Institutua (ICTE) kalitate-sistemak egiaztatzeko entitatea da, turismo-arloko enpresetarako sortua. Jarduera onen eskuliburuaren kasuan bezalaxe, Q kalitatearen ziurtagiriak urtero ikuskapen bat egitea eskatzen du, nahiz eta lehenengoan ez bezala, zerbitzua ordaindu behar izaten den; turismo-establezimenduak Turismo Kalitaterako Sistemara (Q ziurtagiria) atxikitzeko kostuak ordaindu behar ditu, baita marka erabiltzeko eskubideak, ikuskapen-kostuak eta laguntza teknikoa ere.

Cederna Garalur Elkartearen turismo-arloak, ICTEk Nafarroan duen ordezkaria den aldetik, honako eginkizun hauek betetzen ditu:

- Turismo-kalitatearen Q ziurtagiriari buruzko sentsibilizazio eta zabalpen ekintzak lurraldean.
- Ziurtagiria lortzen interesa duten turismo-zerbitzuei eta –establezimenduei bideratutako aholkularitza eta laguntza teknikoa.

2013. urtean:

- Nafarroako Mendialdeko 19 establezimenduk jaso zuten lehenengoz edo berriro zuten kalitatearen Q ziurtagiria.
- 78 laguntza tekniko eman ziren.

14. taula. Turismo-kalitaterako Q sistema. Garapen-agentzien arabeko emaitzak.

Agentzia	Atxikipen berriak	Laguntzak	Q ziurtagiriak
Pirinioarreko arroak		9	1
Baztan - Urdazubi -Zugarramurdi		3	
Zangoza	1	3	2
Esteribar/Aezkoa/Erroibar		3	
Sakana		9	2
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama		22	5
Malerreka- Bertizarana- Bortziriak	1	13	5
Erronkari / Zaraitzu		16	2

Aholkularitza orokorra turismo-establezimenduei

Turismo-kalitaterako zigiluak lortzeko aholkularitza-ekintzez gain, prestakuntzaz nahiz proiektuak garatzeaz gain, elkartearen turismo-arloak Nafarroako Mendialdeko enpresen eta turismo-sustatzaileen kontsultei erantzuten die. Bide horretan, 3 lan-ildo daude:


- Aholkularitza proiektuak garatzeko: proiektuak dinamizatzeko laguntza, informazio orokorra ematea, enpresa- eta bideragarritasun-planak, on-line posizionamendua.
- Finantziazioa bilatzea.
- Izapideak erraztea.

2013. urtean, turismo-arloak halako 47 kontsultari erantzun zien.

15. taula. Aholkularitza orokorra enpresei eta turismo-sustatzaileei bideratuta

Agentzia	Laguntzak
Pirinioarreko arroak	3
Baztan - Urdazubi -Zugarramurdi	9
Zangoza	2
Esteribar/Aezkoa/Erroibar	1
Sakana	7
Mendialdea - Leitzaran - Ultzama	4
Malerreka- Bertizarana- Bortziriak	6
Erronkari / Zaraitzu	15
GUZTIRA	47

5.7. MERKAT-ARI proiektua



MERKAT-ARI proiektuak Nafarroako Mendialdeko landa-eremuaren ekonomian garrantzi handia duten bi sektoretan esku hartu asmo du: esku-langintzan eta mugako merkataritzan. Bi urteko iraupena du, 2014. urtera arte. Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren finantziazioa du (% 100ean), 2007-2013 epealdirako Landa Garapenerako

Programako (LGP) Leader-en 4. ardatzaren bitartez. Aurrekontua denetara 35.000€ da.

MERKAT-ARIk asmoa du ekonomia suspertzea eta enplegua sortzea, bai muga-eremuetan, bai barnealdean, esku-langintzako ogibideei eta tokiko merkataritzari, zehazki mugakoari balioa emanez, muga-eskualdeetako turismo-sektorea baliatuz erakargarri gisa.

Hortaz, garatu beharreko lanak hiru ardatz izanen ditu:

ESKULANGINTZA

Zaindu, balioa eman eta sustatu beharreko baliabide gisa, enplegua sortzen duen jarduera gisa duen ahalmena berreskuratze aldera, eta Nafarroako Mendialdeko bestelako ondare berezi gisa hartuta.

MUGAKO MERKATARITZA

Enplegua sortzeko eta hurbileko herrietara bere publikoaren zati bat eramateko gaitasuna duen ekonomia-eragile gisa, eta zerbitzu- eta jarduerak aukera berriak zabalduz.

TURISMOA

Ekintzak bisitariei zuzendu, horiek baitira publiko xedea eta balioak eta esku-langintzaren eta tokiko merkataritzaren berezitasuna eta kalitatea besterenduko dituztenak. Eskualdeetako turismo-baliabideak erabili, tokiak tokiko eskaintzaren berri emateko eta kontsumora bultzatzeko.

Zehazki, proiektuaren berriazko helburuetako batzuk dira:

- Esku-langintzako ondarea, horri lotutako ogibideak eta esku-langintzako maisuen jarduna, bai ohikoena, bai joera abangoardistena, berreskuratu eta balioa handitu..
- Eskulangintza zabaltzea eta eskulangintzaren salmenta bultzatzea, produktu berezi gisa, bisitan datozenen artean, bai ohiko turismo-informazioko bideak baliatuta, bai mugako merkataritzan eskulangintza sustatuz.

- Esku-langintzako tokiko produktuak Nafarroako Mendialdeko herritarrei beraiei ezagutzera eman eta produktu horien kontsumoa suspertu.
- Esku-langintzako elkarte sektorialak eta merkatarien elkarteak mantentzea eta sortzea sustatzea, elkarte horiek gure ibarretako ekonomian duten eragina eta jarduera indartze aldera.
- Tokiko eta mugako merkatarien taldeen eta elkarten arteko topaketa eta lankidetzak bultzatzea.
- Emakumeak merkataritza-sektorean eta esku-langintzakoan betetzen duen eginkizuna berreskuratzea eta nabarmentzea.

Proiektua hiru fasetan dago banatuta:

I. FASEA: Nafarroako Mendialdeko esku-langintzako eta merkataritzako sektoreen egoeraren analisia.

- Egoeraren diagnostikoa landu bi sektore horietan.

II. FASEA: Sektorearekin lotura izanen duen turismo-produktua diseinatu eta sustatu.

- Esku-langintzarekin lotura duen materiala identifikatu eta lortu.

III. FASEA: Prestakuntza-ekintzak enplegua sortzeko.

- Prestakuntza-ekintzak identifikatu eta diseinatu.


Proiektua 2013ko azken hiruhilekoan hasi zen. Nafarroako Unibertsitateko irakasle eta ikerlari Juan Jose Izquierdo doktorearen laguntza teknikoarekin, Cederna Garalur Elkarteak informazioa bilatzeari ekin dio, esku-langintzarekin lotura duen material bibliografikoa eta egoeraren diagnostikoa lantzeko, eta esku-langintzan profesionalki diharduten nahiz, edozein arrazoi tarteko, esku-langintzan jardunda ere alta emanda ez dauden pertsonak identifikatzeko. Orain arte 80 esku-langile inguru identifikatu dira. Halaber, mugako merkataritzan diharduten enpresen zerrenda egiten hasi ginen.

Aurreikusitakoaren arabera, 2014an Nafarroako mendialdeko esku-langintzako sektorearen katalogo eguneratua aurkeztuko da. Horrez gain, "Mendialdeko mugako merkataritzaren diagnostikoa" izenburupean txostena idatziko da, Nafarroako Mendialdeko mugako denden egungo mapa erakutsiko duena, sektorearen AMIA diagrama (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) eta jarduera hobetzeko eta sustatzeko egon daitezkeen arloak barne.

Bi dokumentu horiek baliagarriak izanen dira Cederna Garalur Elkarteak Nafarroako Mendialdean martxan jarri asmo duen "esku-langintzako 13 ibilbide" proiektua diseinatzeko, aisia eta turismoa esku-langintzarekin eta tokiko merkataritzarekin uztartuz, eta, bestetik, prestakuntza-ekintzak definitzeko.

Cederna Garalur Elkarteak proposatzen dituen esku-langintzako ibilbideak (Aurreikuspena: 2014. urtea)	
Zangoza	1. eta 2. ibilbideak
Sakana mendebaldea (Arbizu-Altsasu)	3. ibilbidea
Sakana ekialdea (Irurtzun - Arbizu)	4. ibilbidea
Zaraitzu	5. ibilbidea
Malerreka - Bertizarana	6. ibilbidea
Leitzarar	7. ibilbidea
Baztan – Urdazubi - Zugarramurdi - Bortziriak	8., 9. eta 10. ibilbideak
Mugaz haraindiko merkataritza	
Luzaide	11. ibilbidea
Bera	12. ibilbidea
Larrun	13. ibilbidea

16. taula. Cederna Garalur Elkarteak proposatzen dituen esku-langintzako ibilbideak. Aurreikuspena: 2014. urtea



A	C/ Mayor, 10	Esther Mendioroz	Patchwork, costura y reciclaje de ropa. Cursos
A	Calle Mayor	Biena Carlos	Ropa y complementos únicos: bolsos, broches, ponchos, vestidos...
B	Alfonso el Batallador, 11	Pedro Javier Mancho	Forja del hierro. Forja a caldo. Diseño
C	Alfonso el Batallador, 16	Biena Reta Amárczegui	Artesanía en cerámica. Piezas de barro refractario, reproducciones de Románico, trabajos por encargo.
D	Urbanización "Las Huertas" Avda. Aragón 397	Colectivo de bolilleros de Sangüesa	Encaje de bolillos
E	C/ Sancho Garcés, 20	Rosa Garralda Iglesias	Cuadros de arena
F	Rocamadour, 33	Eduardo Elizalde	Artesanía del reciclaje. Trabajos con cuero, etc.
G	C/Rocamadour, 37-1ª	Jesús Mari Andueza	Restaurador y constructor Gigantes y cabezudos

23. irudia. Ibilbide baten adibidea: Zangozan barnako ibilbidea, eta identifikatutako dendariak eta esku-langileak.

5.8. CYBERSUDOE'INNOV



2013ko ekainean, "Cybersudoe'Innv" proiektua jarri genuen martxan. Estatz haraindiko lankidetzaproiektua da, eta Europar Batasunaren beterako finantziazioa du, Interreg IVB SUDOE programaren bitartez. Cybersudoe proiektuaren kapitalizazioa da "Cybersudoe'Innov", Europako programa horren beraren baterako finantziazioarekin. Cederna Garalur Elkarteak 2009tik 2011ra bitartean hartu zuen parte proiektu horretan.

Ordutik, bazkide-kopurua ia-ia bere horretan mantendu da; hiru partaide soilik aldatu dira. Cybersudoe proiektuan bezala, garapenerako lankidetzak Frantziako, Espainiako eta Portugalgo 9 bazkidek osatzen dute. Proiektuak bi urteko iraupena du, eta 1.000.000 €-ko aurrekontua du; kopuru horretatik 100.000 € Cederna Garalur Elkarteari dagokio.

Cybersudoe proiektuaren funtsa enpresa txiki eta ertainak eta mikroenpresa txiki eta ertainak IKTez (Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) jabetzea zen, sentsibilizazio-jardunaldiak eta tailerrak baliatuz, eta enpresen artean IKTen inguruko diagnostikoak eginez. "Cybersudoe'Innv" proiektua hareago doa; profesional adituen laguntza teknikoa ematen die enpresei, teknologiaren arloan soluzio berritzaileak ezar ditzaten. Zehazki, "Cybersudoe'Innv" proiektuaren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Europa mailan (eta zehazkiago, proiektuko bazkideen lurralde-esparruan) berrikuntzan eta IKTez adituak direnen sare bat antolatzea.
- Zaintza teknologikoko tresna bat ezartzea, enpresa txiki eta ertainei eta mikroenpresa txiki eta ertainei bideratutako berrikuntza teknologikoan oinarrituta.
- IKTen arloan proiektu berritzailean martxan jarri nahi duten enpresak identifikatzea, eta enpresa horiei lagun egitea soluzio horiek martxan jar ditzaten, adituen aholkularitzaren babespean.


"Cybersudoe'Innov" proiektuaren xede-publikoa enpresa txiki eta ertainak dira (ETEak eta mikroETEak), baita, ordea, adituen sarean parte hartu nahi duten berrikuntzaren eta teknologia berrien arloko aditu profesionalak, eta aipatu profesional horiek batzen dituzten elkarteak eta taldeak, eta enpresa txikiei eta unibertsitateei babesa ematen

dieten sareak, eta SUDOE lurraldean (Frantzia, Espainia eta Portugalgo erdialde-hegoa) berrikuntzaren finantziarioarekin lotura duten erakundeak ere.



24. irudia. "Cybersudoe'Innov" proiektuko bazkideen lurralde-mapa. More kolorez: Cybermassif, proiektu burua.

2013an, jarduera nagusia proiektuaren koordinazioa izan zen, enpresei bideratutako ekintzak abian jartze aldera. 2013ko bigarren seihilekoan lau lan-bilera egin ziren bideokonferentzia bidez, eta lehenengo koordinazio-bilera egin zen urrian, Burgosen.



25. irudia. 5.7 Cybersudoe'Innov proiektua. 2014. urterako aurreikusitako faseak

2014an, ondorengo taulan laburbilduta jaso ditugun proiektuko ekintzak abiaraztea aurreikusita dago:

Ekintzak	Proiektuaren helburua (orokorra)	Proiektuaren helburua (Cederna Garalur)
"SUDOE eremuan" IKTetan eta berrikuntzan adituak izanen direnen sarea sortu		
IKTeen arloan adituen datu-base bat sortu, online erabilgarria	720 fitxa	80 fitxa

Berrikuntzan, ETEetan eta mikroETEetan IKTak erabiliz, lagun egiteko metodologia definitu.		
Lagun egiteko metodologia bateratu bat definitu	Bazkideentzako komuna izanen den gida metodologiko bat, honako hauek jasoko dituena: aurre-diagnostikoko tresna bat, gida bat eta bideo bat.	

Sentsibilizazio-ekintzak eta laguntza teknikoak martxan jartzea, enpresei zuzenduta		
Berrikuntzari eta ETEen inguruko sentsibilizazio-jardunaldiak	45 jardunaldi	5 jardunaldi
IKT eta berrikuntza diagnostikoak enpresetan	370 diagnostiko	45 diagnostiko
Enpresek proposatutako proiektu berritzaileak aukeratzeko lantalde bat sortu	Bazkide guztientzat komuna izanen den lantalde bat.	
Enpresentzako akonpainamendu teknologiko espezializatua, IKT soluzioak ezartze aldera	150	12
Europa mailako lehiaketa "SUDOE eremuan", IKTen bidezko berrikuntzari buruzkoa	Bazkide guztientzat komuna izanen den bat.	

17. taula. Cybersudoe'Innov proiektua. 2014rako aurreikusitako ekintza nagusiak.

5.9. LANIN-G: tokiko gobernantzarako eredu berriak, herritarren parte-hartzearen bidez

Proiektu horren bidez, Cederna Garalur Elkartek asmoa du Nafarroako Mendialdeko landa-eremuetan tokian tokiko lan- eta gobernantza-formula berriak ezartzea, erakunde publikoei, enpresei, herritarren elkarteei eta partikularrei irekita egonen diren tokian tokiko lantaldeak baliatuz herritarren partaidetza oinarri izanen dutenak, eta tokiko baliabideen ustiapen jasagarria hobetzeko baliagarriak izanen direnak, tokiko ekonomia eta pertsonen bizi-kalitatea sustatuz. Hortaz, LANIN-G proiektua ez da denborari dagokionez proiektu itxia, tokian-tokian lanerako erabiliko den metodologiaren hazia baizik, tokiko garapenerako politikak definitzen laguntzeko, betiere gizatasuna eta bizi den lurraldearekiko erlazioa premisa hartuta.



LANIN-G proiektua 2013ko bigarren seihilekoan jarri zen abian, eta 2014an bukatzea aurreikusten da. Denetara, 48.000 €-ko aurrekontua du, eta Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren finantziarioa dauka, 'Nafarroako Mendialdea' LGP 2007-2013 programaren bitartez. Proiektua gauzatzeko, *Konparte Soluciones SL* enpresaren laguntza teknikoa jaso dugu.

Proiektuaren helburuen artean ditugu:

- Lurraldeen kudeaketan eta gobernantzan lan-metodologia berri bat sortzea, lankidetzan eta eztabaida irekian oinarrituta.

- Tokian tokiko gobernantza hobetzea, eta lantaldeetan lurraldeko al bait eragile gehien sartzea: herri-erakundeak, ekonomia-sektoreak (nekazaritza, turismoa, industria), enpresaburuen eta herritarren elkarteak, eta abar, eta horiek identifikatzea eta horien lankidetzaz bultzatzea.
- Generoaren ikuspegia txertatzea definituko diren ekintzetan.
- Europa 2020 estrategiarekin bat etorriko diren helburuak eta lehentasunak definitzeko gauza izanen den tokiko garapenerako dinamika parte-hartzailea ezartzea, eta landa-eremuek gaur egun bizi duten krisi- eta langabezia-egoerari aurre egitea.
- Denboran iraunen duten parte-hartzeko dinamikak garatzea.

Aurrez, 2013ko azken hiruhilekoan, Cederna Garalur Elkarteak, laguntza teknikoarekin batera, Nafarroako Mendialdeko eskualdeetako lantaldeak identifikatu zituen, baita tokiko eragileen mapak ere; alegia, zein ziren lurralde bakoitzaren dinamizazioan parte hartzen zuten erakunde publikoak, pribatuak eta herritar-taldeak, eta zein izanen zen horien lankidetzaz-modua. Fase hori funtsezkoa izan zen komunitate bakoitzeko laneko barne-dinamikak ezagutzeko, herritarrek nola hartzen duten parte eta tokiko garapen-estrategiak nola definitzen zituzten ezagutzeko. Talde horiei guztiei eta tokiak tokiko agintariei lantaldeetan parte hartzeko gonbidapena egin zaie, eta egin ditzaketen ekarpenak jaso.




26. irudia. 'LANIN-G' proiektua. Esteribar - Erroibar - Aezkoako lantaldearen bilera. 2013ko azaroa

Horrez gain, 2013. urtearen amaiera aldera, Nafarroako Mendialdean identifikatutako 7 lantaldeen lehenengo bilerak martxan jarri ziren. Helburua, tokiko errealitatera

egokituko den lan-estrategia bat, eta LANIN-G proiektuaren lan-prozesua definitzea.

Lantalde teknikoak koordinaturik, lau bilera egin ziren:



2013. urtean zehar:

- Zazpi lantalde eratu ziren.
- Bost lantaldek 14 bilera egin zituzten.
- Bilera bakoitzera batez beste 11 lagun joan dira.

2014an Zangozan, Erronkari eta Sakanan helduko diote prozesuari. Aurreikusitakoaren arabera, 2014an eskualde bakoitzean landuko diren ekintzak zehaztuko eta lehenetsiko dira, eta, halaber, ekintza horiek garatzeko lantalde autonomoak eratuko dira. Horrez gain, Nafarroako Mendialde osorako, Cederna Garalur Elkarteak bi lan-mahai sektorial sortzea aurreikusi du: mikologiari buruzkoa bat, eta natura-eremuetan turismoa kudeatzeari buruzkoa.


Lantaldeak	Identifikatutako arlo estrategikoa
Baztan - Bidasoa (I)	Lehen sektorea, nekazaritzako elikagaiena eta baso-sektorea
Baztan - Bidasoa (II)	Enpresa-ekimena eta enplegua
Baztan - Bidasoa (III)	Turismoa, ondarea, merkataritza eta zerbitzuak
Pirinioaurreko arroak	Garapen-estrategiak: Iratiren natura-bidea
Esteribar – Erroibar - Aezkoa:	Nekazaritza- eta baso-sektorea, garapen estrategikorako ikuspegiarekin
Mendialdea-Leitzaran-Ultzama	Garapen-estrategiak
Erronkari - Zaraitzu	Lehen sektorea eta baso-sektorea

18. taula. Identifikatutako lantaldeak eta arlo estrategikoak (data: 2013ko abendua)

Lantaldeak	Egindako bilerak	Partaideak, batez beste	Bileran izandako guztiak
Baztan - Bidasoa (*)	5	10	52
Pirinioaurreko arroak	3	11	34
Esteribar - Erroibar - Aezkoa:	2	17	34
Mendialdea-Leitzaran-Ultzama	3	15	46
Sakana	1	5	5
Erronkari - Zaraitzu	2	8	16
GUZTIRA	16		187

(*) Hiru lantaldeak batera zenbatu dira.


19. taula. 'LANIN-G' proiektua. Egindako bilerak eta partaideak, batez beste (Data: 2013ko abendua)



9. grafikoa. 'LANIN-G' proiektua. Eskualdeetako lantaldeek bileretan izan duten asistentzia. Esteribarren, hirugarren bilera ez da egin 2014ra arte.

6 ■ Informazioa eta komunikazioa

Internet erakundearen jarduerari hedapen zabala ematen dion bitarteko bakuna, merkea eta azkarra da, eta jardun horren eta horrekiko eragina eta interesa areagotzen du, eta,aldi berean, gardentasuna sustatzen du. Cederna Garalur Elkarteak Interneten dago bi bidetatik: Web-orriaren bidez (www.cederna.eu) eta Facebook-en bidez (www.facebook.com/pages/Cederna-Garalur).



Cederna Garalur Elkartearen web-orria eremu instituzional gisa gorde da, elkartearen barne-antolakuntza eta helburuak (Nafarroako Mendialdearen garapenarekin lotuak) azaltzera bideratuta. Horrez gain, jarduerari buruzko berriak eta ekimenen, ikastaroen eta jardunaldien agendaren berri ematen du. Cederna Garalur Elkarteak sortutako informazio guztia gaztelaniaz eta euskaraz ematen da

argitara. 2013an, 59 sarrera egin ziren ekitaldien agendan, eta horietatik 31 berriak eta 24 oharrak ziren. Web-orriak hilean batez beste ia 700 jarraitzaile ditu; 2013an, 8.304 bisitari izan zituen.

2013an zehar, Cederna Garalur Elkarteak Facebook-eko kanalari beste bultzada bat ematea erabaki zuen. Gizarte-sareak azkarrak eta erraz eguneratzekoak dira, beste iturri batzuetako berriak partekatzeko, eta,aldi berean, informazioa partekatuko duten jarraitzaileak edukitzeko aukera ematen dute, eta oso publiko anitza leial bihurtzea lortzen dute. Hori dela-eta, Cederna Garalur Elkarteak bide hori aukeratu zuen Nafarroako Mendialdearekin lotura zuten berriak partekatzeko, eta berri horien zabalpena areagotzeko. Berri horiek ez ziren soilik instituzionalak, baita, eta batez ere, lurraldean bizi eta lan egiten zuten ekintzaileen jardueraren, tokiko ekimenen nahiz enpresa-elkarteen berri emateko ere. Facebook-eko kanala ia egunero eguneratzen genuen, sarrera berriak txertatuta. Ahalegin horrek 145 jarraitzaile ekarri zizkigun kanalera. Egunean batez beste 12 bisitari zituen, eta hilean, batez beste, 1.022 bisitari; alegia, kanalean sartzen, irakurtzen eta informazioa partekatzen zutenak. Sarrerak mota askotakoak izan ziren: Cederna Garalur Elkartearen berriak eta antolatutako

ekitaldiak, Nafarroako Gobernuko atariko berriak, tokiko hedabideetakoak, eskualdeko prentsakoak, eta abar.



27. irudia. Cederna Garalur Elkartearen Facebook kanalaren bista.

<http://www.facebook.com/Cederna-Garalur>

Cederna Garalur Elkarteak Interneten duen presentzia. 2013ko adierazleak

www.cederna.es **web-orria**

- 8.704 bisitari
- Batez besteko egonaldia lekuan: 2 minutu.
- Bisitari berrien ehunekoak: % 67 ingurukoa.
- Gako-hitzak: Cederna Garalur, Zaldi ostatuen Europako sarea, IKT, enpresak, biomasa

Facebook www.facebook.com/Cederna-Garalur

- 145 jarraitzaile
- Egunero 12 bisitari
- Batez besteko helmena: 1.022 pertsona

Komunikazio-zerbitzua eta lankidetzahitzarmena tokiko hedabideekin.

Cederna Garalur Elkartearentzat hedabideak bitarteko garrantzitsua dira Elkartearen jardueraren berri emateko. Hori dela-eta, hedabideetan presentzia edukitzen saiatzen da, bai tokian tokikoetan, bai eskualde- nahiz estatu-mailakoetan ere; horretarako, prentsa-oharrak, deialdiak, elkarrizketak eta Cederna Garalur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen gertakarietarako gonbidapenak baliatzen ditu. Cederna Garalur Elkarteak, bere komunikazio kanalaren bidez, 2013an 11 prentsa-ohar bidali zituen, gaztelaniaz eta euskaraz, tokiko eta eskualdeko hedabideetara. Halaber, REDR, Espainiako landa-garapenerako sareak Cederna Garalur Elkartearen hiru artikulua jaso zituen tokiko garapen jasagarriaren inguruko jarduera onei buruz.

Bestalde, 2012an tokiko hedabideekin sinatutako hitzarmena berri guren 2013an. Hedabide horiek (idatziak, irratiak eta telebistak) lotura estua dute eskualdeen errealitatearekin, beren argitalpenetan eta emanaldietan landa-eremuetako eguneroko bizitza jasotzen dute, tokian tokiko gaurkotasunaren erreferente bihurtzen dira, eta konfiantza-maila altua lortzen dute herritarrengan. Hitzarmena 'Nafarroako Mendialdea' LGP 2007-2013 programako Leader-en 4. ardatzaren barnean txertatzen da, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak finantzaturik.

Prensa idatzia	Irratia	Telebista	Udal-hedabideak
Mendixut	Aralar Irratia	Xaloe Telebista	Al revés
Bierrik Fundazioa. Guaixe	Karrape irratia		Xinple!
Ttipi Ttapa	Xorroxin		Itzaga
Ametza Kultur Taldea. Pulunpe	Bierrik Fundazioa. Beleixe		Ilunberri
Mailope Elkarte. Mailope	Irati irratia		Mendialde Beherea


20. taula. 2013an Cederna Garalur Elkartearekin lankidetzahitzarmena berri guren zuten tokiko hedabideak

Hedabideak
Diario de Navarra
Diario de Noticias
Diario Vasco
REDR, Espainiako landa-garapenerako sarearen aldizkari digitalak
REDR-ren Twitter-eko kanala

21. taula. Cederna Garalur Elkarteak presentzia eduki duen beste hedabide batzuk

Lankidetzaz horren ondorioz, 2013ko lehenengo sei hilabeteetan, Cederna Garalur Elkarteak 11 berri, elkarrizketa eta iragarki bidali zituen hitzarmena sinatu zuten 15 hedabideetara; horrela, 85 agerraldi izan zituen tokian tokiko prentsan, irrati eta telebistetan. Horrez gain, 2013. urte hasieran, Nafarroako Mendialdean lan egiten zuten hedabideak jasotzen zituen gune bat gaitu genuen Cederna Garalur Elkartearen web-orrian. Hemen kontsulta daiteke zerrenda:

<http://www.cederna.eu/actualidad/medios-comunicacion-locales/>




The screenshot shows the website's navigation menu with options like 'Nuestra Asociación', 'Desarrollo Rural', 'Servicios', 'Proyectos', 'Actualidad', 'Publicaciones', and 'Contacto'. The main content area is titled 'Medios de comunicacion locales' and lists several media outlets with their logos and website addresses:


- Mendixut**: mendixut.com, WEB: www.mendixut.com/
- Bierrik Fundazioa. Guaixe**: guaixe.net, WEB: www.guaixe.net/Bierrik.asp
- Ttapi-ttapa**: ttapi-ttapa, WEB: www.ttapi.net/
- Ametza Kultur Taldea. Pulunpe**: PULUNPE, WEB: ametza.info
- Mailope Elkarte. Mailope**: mailope, WEB: issuu.com/search?q=mailope
- Sanguesacomarca.com**: sanguesacomarca.com, WEB: www.sanguesacomarca.com

28. irudia. "Tokiko hedabideak" atalaren bista, hemen ikusgai:

<http://www.cederna.eu/actualidad/medios-comunicacion-locales/>



10. grafikoa. Tokiko hedabideekin sinatutako lankidetzak-hitzarmena. Cederna Garalur Elkarteak tokiko hedabideetara bidalitako berriak, gaika banaturik



11. grafikoa. Tokiko hedabideekin sinatutako lankidetzak-hitzarmena. Cederna Garalur Elkartearen berriek inpaktua (tokiko hedabideetan izandako agerraldiak), gaika banaturik.

Cederna Garalur Elkartearen Europari buruzko informazioa ematen duen Europe Direct gunea Europako Batzordeko Prentsa eta Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren "Europe Direct Sarea" izenekoaren partaide da. Sarea Europa osoan barrena kokatuta dauden 480 gunek, gutxi gorabehera, osatzen dute. Zentro horien eginkizuna da Europar Batasuna eta horren instituzioak Europako herritarrei hurbiltzea, Europar Batasunari, bere jardueri eta programei buruzko informazioa sortuz, zabalduz eta emanez.

Sare horren partaide izanik, Nafarroako Mendialdean Cederna Garalur Elkartearen 'Europe Direct' informazio-zentroaren helburuak dira:

- Toki-erakundeei eta partikularrei Europar Batasuneko legeriari, politikei, programei eta finantza-laguntza jasotzeko aukerei buruzko informazioa ematea.
- Europako gaien eta landa-garapenaren inguruan esperientziak eta hausnarketak trukatzeko topaguneak antolatzea.
- Aktiboki lan egitea Europako beste informazio-zentroekin eta europar izaera duten beste erakundeekin, Europako proiektuak martxan jartzen bazkideak bilatzeko sareak ezartze aldera.

Sareko kidea den Cederna Garalur Elkartearen Europe Direct Europako informazio-zentroak honako erakunde eta elkarteekin dihardu lankidetzan:

- Europako Batzordearen Komunikazio Zuzendaritza Nagusia: Europako Europe Direct guneen Sarea
- Europako Batzordeak eta Parlamentuak Espainian duten ordezkariak.
- UrdimbrED: Landa-eremurako Europari buruzko informazio-zentroen elkarteak. Gaur egun Europako zazpi informazio gunek osatzen dugu (garai bateko 'landa-carrefourrak'), eta Tokiko Ekintza Taldeen antzeko harrera-egituretan edo antzekoetan txertatuta gaude.
- Estatuko Landa Sarea, UrdimbrED-ek egiten duen jarraipenerako batzordeko kide gisa.

Gaur egun, Cederna Garalur Elkartearen 'Europe Direct' gunea Nafarroan halako egitura duen bakarra da. Horregatik, zentroak ematen dituen zerbitzuak Nafarroako Mendialdetik hareago doaz. Harpidedun ugariri bidaltzen die informazio-agerkaria, eta azoketan eta topaketetan hartzen du parte.



2013an, "Ez nago geldirik. Nire geroa aukeratzen dut!!" kanpaina zabaltzen lagundu genuen. Aipatu kanpaina Europako Batzordeak jarri zuen abian Europar Batasunerako Estatu Idazkaritzarekin lankidetzan, eta 16 eta 25 urte bitarteko gazteei zuzenduta zegoen, horiei ikasketa- eta enplegu-aukerak ahalbidetze aldera. Kanpaina Iruñean aurkeztu zen 2013ko martxoan, ikaslearen nazioarteko erakusketako infocampusean.

Horrez gain, Europako Batzordeak urrian Bruselan eta Sofian (Bulgaria) antolatu zituen 'Europe Direct' informazio-zerbitzuen Batzar Nagusietan hartu genuen parte, baita urriaren 28an eta 29an Valladoliden burutu zen Europako informazio-sareen topaketan ere. Halaber, Bartzelonan otsailaren 16an eta 17an egin zen Mediterraneoko Euroeskualdearen bileran parte hartu genuen.



Herritarren urte europarrean, Cederna Garalur Elkarteak partaide den UrdimbRED sareak landa-eremuetan bizi diren, eta EBko herritar gisa beren eskubideak gauzatzekoan izan zituzten esperientziak kontatzen zituzten pertsonen lekukotasuna jasotzen zuen bloga argitaratu zen.

Cederna Garalur Elkarteak Frantziarekiko mugan bizi diren bost pertsonen esperientziak eraman zituen.



29. irudia. UrdimbRED sarearen bloga. URL: <http://redurdimbredrural.wordpress.com/>



Bestalde, Cederna Garalur Elkarteak, Europari buruzko informazio-zerbitzuaren bitartez, Mendialdeko eskualdeetan 2014-2020 epealdirako mugaz gaindiko lankidetzari buruzko topaketa antolatu zuen Auritzen. Jardunaldia, Euskal Autonomia Erkidegoko Europari buruzko informazio-zerbitzu HAZIren lankidetzarekin, baliagarria izan zen, besteak beste, honako

hauetarako: landa-garapenerako hurrengo programaren 2014-2020 epealdirako helburu nagusiak aurreratzeko, eta Nafarroako Mendialderako interesekoak izan daitezkeen arloetan proiektuak eta esperientziak ezagutzera emateko eta partekatzeko (baso-baliabideen kudeaketa; nekazaritzako elikagaiak merkaturatzea, bide laburren edo finantziazio-formula berrien bitartez). Proiektuen arduradunek lehen pertsonan kontatutako 6 esperientziak Nafarroan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Akitanian (Frantzia) landu ziren. Horrez gain, jardunaldiaren barnean, HAZI informazio-zerbitzuak "Euromontana" elkarteak aurkeztu zuen (Europako mendialdeko eskualdeen elkarteak). Topaketan 40 lagunek hartu zuten parte. Jardunaldiari buruzko informazio guztia eskuragarri dago honako URL honetan: <http://www.cederna.eu/europa/?p=472>



Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren kontseilari Javier Esparzaren esku-hartzea.



Nekazaritzako elikagaiei buruzko lan-mahaia. ANATOLE (HAZI) eta ITERA-AA (Cederna Garalur) proiektuen aurkezpena.



Baso-baliabideen kudeaketari buruzko lan-mahaia. Akitaniako esperientzien eta BASOLAN proiektuaren (Cederna Garalur) aurkezpena.




Aurizko Kultura Etxea. Iradokizunen taula.

30. irudia. 2013ko abenduaren 9an Auritzen antolatutako lurraldeen arteko lankidetzari buruzko jardunaldia.

2013an, Europari buruzko 'Europe Direct' informazio-zerbitzuak bere web-orria berritu zuen, orriaren mantentze-lana errazte aldera. Europako Batzordearen politikekin eta jarduerarekin lotura zuten berriak eman zituen argitara, eta proiektuetarako bazkideak bilatzen lagundu zuen.

Horrez gain, eta ohikotasunez, Europe Direct informazio-zentroak honako zerbitzuok eman zituen:

- Aldizkari elektronikoa: aldizkari ofizialek jasotzen dituzten laguntzetan eta subentzioetan espezializatua: eskualdeko aldizkariak, estatukoak eta Europakoak: NAO, BOE, EBAO; udaletara, ekipo teknikoetara eta lurraldean interesa duten beste eragileei igortzen zaizkie. 2013. urtean, 42 buletin eman ziren argitara, eta 349 jasotzaileri bidali zitzaizkien.
- Kontsultak: 2013an, 192 kontsultari egin zitzairen arreta.



12. grafikoa. Europari buruzko informazio zentroa, Cederna Garalur Elkartearen Europe Direct. Arreta egindako kontsultak, kontaktuaren arabera

7 ■ Eraitza ekonomikoak

BALANTZE LABURRA 2013. EKITALDIA IXTEAN

AKTIBOA	2013	2012
A) AKTIBO EZ KORRONTEA	515.982,12	569.726,45
I. Ibilgetu ukiezina	0,00	0,00
II. Ibilgetu materiala	491.783,79	527.528,12
IV. Epe luzerako inbertsioak taldeko enpresetan eta Elkartuetan, epe luzera	3.006,00	3.006,00
V. Epe luzerako finantza-inbertsioak	21.192,33	39.192,33
A) AKTIBO KORRONTEA	6.809.206,00	6.741.297,94
III. Merkataritza-hartzekodunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	6.794.087,71	6.445.987,32
* Salmentengatiko eta zerbitzua emateagatiko bezeroak	91.705,73	48.028,80
* Herri Administrazioak eta beste zordun batzuk	6.702.381,98	6.397.958,52
IV. Epe motzerako inbertsioak taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan	3.600,00	30.000,00
VI. Epe motzerako aldizkakotzeak	2.622,74	2.622,74
VII. Esku-dirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	8.895,55	262.687,88
GUZTIRA OROKORRA (B+D)	7.325.188,12	7.311.024,39

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2013	2012
A) ONDARE GARBIA	39.588,86	153.989,01
A1) FUNTS PROPIOAK	-314.015,37	-67.179,75
III. Erreserbak	-158.809,40	-88.843,31
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak	21.663,56	131.000,19
VII. Ekitaldiaren emaitza	-176.869,53	-109.336,63
A3) DIRU LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA JASOTAKO ONDAREAK	353.604,23	221.168,76
B) PASIBO EZ KORRONTEA	1.325.153,64	1.015.600,58
I. Epe luzerako zuzkidurak	335.385,11	335.385,11
II. Epe luzerako zorrak	780.040,88	469.754,63
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	778.848,88	469.394,63
5 Beste finantza-pasibo batzuk. Fidantzak	1.192,00	360,00
III. Epe luzerako zorrak taldeko enpresek in eta enpresa elkartuekin	209.727,65	210.460,84
C) PASIBO KORRONTEA	5.960.445,62	6.141.434,80
III. Epe motzerako zorrak	327.085,09	898.197,83
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	327.085,09	897.293,76
3. Epe motzerako zorrak	0,00	904,07
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk	5.633.360,53	5.243.236,97
1. Hornitzaileak	50.954,54	58.792,31
2. Bestelako hartzekodunak	5.582.405,99	5.184.444,66
GUZTIZKO OROKORRA (A+B+C+D+E)	7.325.188,12	7.311.024,39

CEDERNA-GARALUR ELKARTEA, 2013. URTEA

2013. EKITALDIKO GALERA ETA IRABAZIEN KONTU LABURTUA

	2.013	2.012
4 HORNIDURAK	-219.985,42	-122.388,11
5 USTIAPENAREN BESTELAKO SARRERAK	1.054.490,28	1.252.073,52
74.- Diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak	597.920,15	804.305,08
75.- Bestelako kudeaketa-sarrerak.	456.570,13	447.768,44
6 LANGILEEN GASTUAK	-677.206,51	-885.719,37
7 USTIAPENAREN BESTELAKO GASTUAK	-210.964,36	-261.708,10
8 IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA	-36.283,08	-40.970,52
10 Zuzkidura-soberakinak	0,00	0,00
11 IBILGETUA NARRIATZEA ETA BESTERENTZEAGATIKO EMAITZA	-19.771,97	12.375,03
790 Horniduren soberakina eta aplikazioa	0,00	12.375,03
690 Narriadurak eta galerak	-19.771,97	
A) USTIAPENAREN EMAITZA	-109.721,06	-46.337,55
12 DIRU-SARRERA FINANTZARIOAK	2,16	1.128,85
13 FINANTZA GASTUAK	-72.129,98	-64.127,93
16 FINANTZA TRESNEN NARRIADURA ETA BESTERENTZEAGATIKO EMAITZA	4.979,35	
B) EMAITZA FINANTZARIOA	-67.148,47	-62.999,08
C) ZERGA AURRETIKO EMAITZA	-176.869,53	-109.336,63
17 MOZKINEN GAINEKO ZERGAK	0,00	0,00
D) EKITALDIAREN EMAITZA	-176.869,53	-109.336,63

2014ko DIRU SARREREN AURREKONTUA ETA 2013an GAUZATUTAKOIA

	2013ko AURREKONTUA	2013an GAUZATUTAKOIA	2014ko AURREKONTUA
DEIALDIAK / NGrekiko HITZARMENAK	105.172,15	39.997,86	185.650,00
KALITATEKO TURISMOA + ICTE	35.000,00	31.020,87	30.000,00
NEZ / TGE	70.172,15	8.976,99	155.650,00
ELKARTEKIDEEN KUOTAK ETA LAGUNT	462.326,77	457.169,17	469.932,82
BABESLEAK	49.135,13	15.000,00	20.000,00
ELKARTEKIDEEN KUOTAK	413.191,64	442.169,17	449.932,82
JARDUERA ETA ZERBITZUENGATIKO D	0,00	19.382,47	0,00
BESTE ZERBITZU BATZUK	0,00	16.535,95	0,00
Aurreko ekitaldietako diru-sarrerak	0,00	2.846,52	0,00
EUROPAKO FUNTSAK	545.203,79	449.514,25	652.913,17
LGP PROIEKTUAK	483.220,93	404.812,71	515.315,67
LGP - FUNTZIONAMENDUA	205.305,00	205.305,00	282.584,38
LAGP - KOMUNIKAZIOA	32.277,74	24.310,20	0,00
LGP - ENPRESAK KUDEAKETA	7.016,19	2.463,51	0,00
LGP - LANKIDETZA BIDEAK	87.647,60	73.367,79	66.550,00
LGP - LANKIDETZA, HURBILEKO MERKA	0,00	0,00	10.447,42
LGP - LANIN-G	39.000,08	21.803,16	26.466,92
LGP - PRESTAKUNTZA ETEak	27.500,00	26.957,45	27.500,00
LGP - MERKAT-ARI	22.474,30	15.835,81	19.190,99
LGP - NATURA BALIABIDEAK	35.000,00	19.395,56	45.620,30
LGP - EKINTZAILTZA	27.000,02	15.374,23	36.955,66
BESTE PROIEKTU BATZUK	61.982,86	44.701,54	137.597,50
EUROPE DIRECT	22.500,00	19.177,57	22.500,00
INTERREG ITERA-AA	39.482,86	25.523,97	60.392,43
INTERREG CYBERSUDOE-INNOV	0,00	0,00	54.705,07
ESTATUKO FUNTSAK	98.954,00	93.408,04	0,00
BILEREN TURISMOA	98.954,00	93.408,04	0,00
SARR. GUZTIRA, LGPko "3." ONURADUN	1.211.656,71	1.059.471,79	1.308.495,99
LGP FUNTSAK, 3. ONURADUNAK	960.231,41	738.870,46	683.655,04
LEHIAKORTASUNA	132.504,38	132.504,38	35.111,50
INGURUMENA ETA LANDA INGURUNEA	118.466,73	120.000,00	162.892,63
BIZI KALITATEA ETA DIBERTSIFIKAZIOA	709.260,30	486.366,08	485.650,91
SARR. GUZTIRA, LGPko "3." ONURADUN	2.171.888,12	1.798.342,25	1.992.151,03

	A	B	C	D	F
1	CEDERNA GARALUR ELKARTEA				
2	ASOCIACIÓN CEDERNA GARALUR				
3	GASTOS		2013ko	2013an	2014ko
4			AURREKONTUA	GAUZATUTAKOIA	AURREKONTUA
5	I. LANGILEEN GASTUAK		598.882,90	677.206,51	670.049,82
6	I.1 Soldatak eta lansariak eta gizarte-segurantza		598.882,90	583.731,69	670.049,82
7	I.2 Atzerapenak		0,00	9.446,05	0,00
8	I.3 kalte-ordainak		0,00	84.028,77	0,00
9	II. ORDEZKARITZA GASTUAK ETA JOAN-ETORRIENGATIKO GASTUAK		58.252,00	62.792,47	92.317,04
10	II.1 Ordezkaritza eta publizitatea		18.000,00	18.819,00	18.000,00
11	II.2 Joan-etorriak eta ordezkariak		40.252,00	43.973,47	74.317,04
12		TEGE (8 agentzia - 2014, eta 5 agentzia - 2013)	15.500,00	15.208,05	28.658,97
13		LGP - MERKAT-ARI	250,00	221,81	778,19
14		LGP - Funtzionamendu-gastuak	170,00	159,25	6.000,00
15		LGP - Lankidetzak, bideak	200,00	176,00	816,00
16		LGP - Lankidetzak, hurbileko merkataritza	0,00	0,00	2.160,00
17		LGP - Basolan	0,00	0,00	1.000,00
18		LGP - Erne	0,00	36,00	937,80
19		LGP - Enpresentzako prestakuntza II	850,00	908,70	1.050,00
20		LGP - LANIN-G	100,00	79,68	805,92
21		LGP - Enpresak	800,00	812,58	0,00
22		Koop - RCB	370,00	325,66	0,00
23		EUROPE DIRECT	1.200,00	1.147,28	0,00
24		Interreg-Itera	1.600,00	1.586,08	5.500,19
25		Interreg-Ciberinnov	300,00	244,80	8.755,20
26		NG - Sicted	2.000,00	2.319,36	1.354,77
27		Gerentzia	10.000,00	10.254,78	10.500,00
28		Lehendakaritza	3.500,00	3.694,48	3.500,00
29		Egiturako bidala-gastuak	3.412,00	6.798,96	2.500,00
30	III. Lokalen gastuak		46.969,27	36.296,91	42.679,03
31	III.1 Eraikina konpontzea, mantentzea eta zaintzea		400,00	301,96	180,53
32	III.2 Elektrizitatea eta ura		10.763,27	8.508,09	8.419,38
33	III.3 Antsoingo egoitzako telefonoak, beste batzuk		12.600,00	11.936,87	12.750,00
34	III.4 Beste batzuk (aseguruak, garbitasuna, zergak, eta abar)		16.906,00	7.855,90	11.256,00
35	III.5 Agentzien beste gastu batzuk		6.300,00	7.694,09	10.073,12
36	IV. Beste gastu arrunt batzuk		211.609,55	217.037,04	168.358,32
37	IV.1 Materiala. Amortizazioa		41.000,00	36.283,08	41.000,00
38	IV.2 programa informatikoak eta zerbitzu telematikoak. Telecom laguntza		14.000,00	14.318,65	8.400,00
39	IV.3 Harpidetzak, liburuak eta dokumentuak, fotokopiak		1.100,00	755,7	1600
40	IV.4 Bulego-materiala		7.500,00	7.518,43	8.200,01
41	IV.5 Posta, mezularitza		2.000,00	1.101,64	1.560,00
42	IV.6 Finantza-gastuak		77.895,48	72.129,98	66.927,13
43	IV.7 Itzulpenak - Beste zerbitzu batzuk		9.094,23	7.545,99	7.949,38
44	IV.8 Profesional independenteen laguntza		36.000,00	36.000,00	12.000,00
45	IV.9 Profesionalak ez diren beste batzuk		23.019,84	41.383,57	20.721,80
46	V. BESTELAKO GASTUAK ETA KONTRATAZIOAK		295.943,39	243.008,39	299.100,04
47		INTERREG ITERA-AA	19.900,01	14.566,24	33.429,01
48		TURISMOA-SICTED	0,00	0,00	2.519,29
49		LGP - FUNTZIONAMENDUA	9.198,78	9.928,00	83.503,07
50		LGP - MERKAT-ARI	11.374,00	8.568,39	13.068,00
51		LGP - LANIN-G	26.983,00	11.276,64	18.074,98
52		LGP - BIDEAK, LANKIDETZA	71.995,00	61.511,70	3.388,00
53		LGP - HURBILEKO MERKATARITZA, LANKIDETZA	0,00	0,00	34.485,00
54		LAGP - KOMUNIKAZIOA 12	7.683,50	508,20	0,00
55		LGP - KOMUNIKAZIOA, HITZARMENA	16.064,00	16.806,85	0,00
56		LGP - ENPRESAK 12	3.500,00	4.669,76	0,00
57		KOOP - RITER	2.200,02	26,34	0,00
58		Koop - RCB	66.400,00	66.017,92	0,00
59		EUROPE DIRECT	9.800,00	7.043,82	0,00
60		LGP - NATURA BALIABIDEAK - BASOLAN	13.598,37	14.943,26	33.858,50
61		LGP - EKINTZAILITZA	16.940,00	10.064,39	25.289,00
62		LGP - ENPREZENTZAKO PRESTAKUNTZA	18.031,70	16.711,00	22.435,20
63		INTERREG CYBERSUDOE-INNOV	2.275,01	365,88	29.049,99
64	GASTUAK GUZTIRA, LGPko ONURADUNEN AURRETIK		1.211.657,11	1.236.341,32	1.272.504,25
65	SARRERAK GUZTIRA, LGPko ONURADUNEN AURRETIK		1.211.657,11	1.059.471,79	1.308.495,99
66	ALDEA, LGPko ONURADUNEN AURRETIK		0,00	-176.869,53	35.991,74
67	VI. LGPko ONURADUN PRIBATUEN GASTUAK GUZTIRA		960.231,41	738.870,46	683.655,04
68		COMPETITIVIDAD	132.504,38	132.504,38	35.111,50
69		MEDIO AMBIENTE Y ENTORNO RURAL	118.466,73	120.000,00	162.892,63
70		CALIDAD DE VIDA Y DIVERSIFICACION	709.260,30	486.366,08	485.650,91
71	GASTUAK GUZTIRA		2.171.888,52	1.975.211,78	1.956.159,29
72	DIRU SARRERAK GUZTIRA		2.171.888,52	1.798.342,25	1.992.151,03
73	ALDEA		0,00	-176.869,53	35.991,74



cederna
garalur





Georari begirako bultzada

CEDERNA GARALUR ELKARTEA

2014rako LAN PLANGINTZA

1. Jardueraren baldintzatzaileak

2013ko oroitza-txostenean jaso dugu gure erakundeak bizitutakoa eta hartutako erabakiak, baita pasa den urte honetan garatu ditugun ekintzak ere. Eta aurreko urtean bezala, 2014. honi aurre egiteko, abiatu aitzin hainbat baldintzatzaile hartu behar dugu kontuan:

- Iaz azaldutakoaren arabera, gure baldintzatzailerik garrantzitsuenetako bat Nafarroako Mendialdeko Landa Garapenerako Programa (LGP), 2007-2013 epealdirakoa, izan zen, eta aurtun, erabilgarri dugun aurrekontua konprometitu, programa horrek, horren kudeaketak, eta kontrol-organoaren etengabeko eskakizunek baldintzatzen dute, gogor, gure jarduera. Administrazio-karga eta burokrazia altuak dira, areago irizpideak eta arauak etengabe aldatzen badira.
- Enplegua erregulatzeko espedienteak % 30 murriztu du lantalde teknikoa.
- Proiektuak gauzatzeko konpromisoek ahalegin tekniko handia eskatzen dute proiektu horiek gauzatzeko.
- Datozen hiru urteotarako finantza-kargaren inguruko aurreikuspen handia. Helburua da elkarrekin 2016-2017rako finantza-karga arrazoizkoagoak eta eraginkorragoak edukitzea.
- Lantalde tekniko guztia lurraldean kokatzeko konpromisoa. Ezinezkoa gertatu zaigu konpromiso hori betetzea 2013an.

Doikuntza-neurriek eta berregituraketek jarduera teknikoari eragin dioten urte gogor baten ondoren, 2014. urtea sendotze-urte eraginkorra izatea ezarri diogu gure buruari; urte eraginkorra lurraldean, lurraldearekin eta horko eragileekin. Estatutuak eta kuotak berrikusteko urtea izanen da, 2014-2020 epealdi berri hori prestatzeko eta horretara egokitzeko urtea, hain zuzen ere.

2. Lan-arloen antolamendua, lantaldearen dimentsioa eta oinarrizko planteamenduak

Lan-arlo eta estrategia nagusiak berretsi

Lan-arloak finkatzea, eta horiek ekintzailtzarantz, enplegurantz eta prestakuntzarantz bideratzea giltzarri izan da, gai-arlo guztiak estaliko dituen estalki gisa.

Ekintzailtza SAREarekin eraginkorki bat egitea da gure helburuetako bat, baita gure jardueran beste erakundeekiko eta lurraldeekiko lankidetzatxertatzea ere, arazoak partekatzeko, bitartekoak baliatzeko eta Nafarroako Mendialderako aukerak sortzeko dinamika baten barnean.

2014. honetako helburua, funtsean, iaz diseinatutako proiektuekin ezarritako helburuak betetzea, eta hurrengo epealdirako ildo nagusiak ezartzea da.

Lantalde teknikoaren dimentsioa

Gure iritziz, lantaldea erakundearen errealitatera eta ezaugarrietara egokituta dago. Aurten, horren inguruan, gure helburua izanen da lantaldea finkatzen bukatzea Cederna Garalur Elkartearen barnean, homogeneousitate aldera, eta eginkizunak banatze aldera.

2014rako aurreikusita genuen enplegu-erregulazioko espediente ez dugu gauzatu, espediente hori aplikatzekotan, ez baikenituzke hartutako konpromisoak beteko.

Ildo horretan, langileen konpromisoa azpimarratu behar dugu, eta, halaber, lan-karga benetan eraginkorra eta operatiboa izanen den mailara murriztuko duten lan-formulak aurkitu beharrean gaude.

Antsoaingo lantalde teknikoa deskontzentratzea eta lurraldean kokatzea.

Urtearen hasieran erabilgarri zeuden espazioak identifikatuta, lantalde osoa lurraldera eramatea eta lantalde hori zonaldeetan garatuko eta aplikatuko diren dinamika guztietan txertatzea aurreikusi zen. Eta halaxe egin genuen 2014ko otsailean.

Taldea Nafarroako Mendialdeko hainbat herritan banatu da, irizpide hirukoitzarekin:

- Kokapenari erreparatuta giltzarri, lurraldeen arteko lotura izan daitezkeen herrietan lokalak/bulegoak egotea, eremu zabalagoetara heltzea eta horiei laguntzea errazte aldera.



- Gerentzia, LGPren eta komunikazio-arduradunarekin, lehendakaritzatik hurbil.
- Tokiko enplegu- eta garapen-eragilea (TEGE) lurraldean mantendu eta horren irudia indartu.
- Agentzien lana lan-arloen ikuspegitik eta enplegurako eragileen ikuspegitik. Memoriak eta 2014rako lan-egitasmoa eta helburuak aurkeztu.

Sareko lana eta "hodeian"

2013an, Google Drive izeneko tresna erabilia sarearen bitartez dokumentuak partekatzea oinarri duen lan-sistemari heldu genion. Sistema ezarrita, honako hau proposatzen dugu 2014. urte honetarako:

- Proiektuak kudeatzeko gure tresnan daukagun informazioa erabili eta eguneratu, eta gehienez ere hilabeteen behin parteak eguneratu.
- Hodeiko agirien kudeaketa operatiborako aukerak baloratu eta inplementatu.
- Skype tresna gisa erabili, bileretarako eta koordinatzeko joan-etorrietan denbora eta dirua aurrezteko. Lantalde tekniko osoa prestatzea eta tresna hori modu eraginkorrean erabiltzeko beharrezkoak diren ekipoak edukitzea aurreikusi dugu.

3. Estatutuen eta kuota bakarraren afera berrikustea

2014. honetan, estatutuak aldatzeko eta kuotak murriztera eta erakunde guztiek egin behar dituzten ekarpen ekonomikoak sinplifikatuko eta bidezkoago egingo duen kuota bakarraren planteamendura eramanen gaituzten formulak bilatzeko lan irekia burutuko dugu.

Bestalde, horietan lan- eta antolakuntza-eredu berria garatu beharra dagoela ikusi dugu, eta horretan sektore pribatuaren eta gizarte-sektorearen inplikazioak eraginkorragoa eta dinamikoagoa izan behar du. Halaber, eskualde guztietan aintzat hartu eta eskatu dute eskualde bakoitza gai izatea bere lan-dinamika propioa ezartzeko. Horretarako, lurraldeetan informazioa, estrategiak eta garatu beharreko ekintzak etengabe elkarri trukatzuz ibiltzea ahalbidetuko duten lantaldeak eta mahai sektorialak eratu behar dira.

Azkenik, eskualdeen ordezkariak berraztertu eta orekatu beharreko afera bat da. Helburua da 2014ko batzarrean estatutuak eta kuotak aldatzeko proposamen bat aurkeztea.

Aukera-berdintasunerako plana ezartzea


2013rako aurreikusita genuen aukera-berdintasunerako plana ezartzea, baina ez da gauzagarri izan, nagusiki, enplegua erregulatzeko espedienteak ezarri izanaren eta gure ahalegina beste helburuetan jarri behar izanaren ondorioz. 2014. honetan, plan horri urteko bigarren sei hilabetean berriro heltzea eta gauzatzea aurreikusi dugu.

Gobernantza- eta partaidetza-eredu berriak LANIN-G, gure lan-metodoa.

Pasa den urtean, 2014. urte honetan indartu eta hobetu nahi dugun lan-metodoa ikasi, probatu eta praktikatu genuen.

Finkatu asmo dugu eraginkorra delako, eta eragileen arteko solaskidetzatik eta ezagutzatik abiatuta guztiz baliagarria direla erakutsi diguten konfiantza eta ideiak ematen dituelako.

Garrantzitsua da, nolahi ere, parte-hartze eta inplikazio maila altuak dakartzan kargari, frustrazioari eta zailtasunari buruz hausnartzea. LANNIN-G metodoa ezarrita lortuko ditugun emaitzetatik abiatuta, ezarri beharreko neurriak ebaluatuko ditugu, dinamika hori hobetze eta bideratze aldera. Horrela, ekintzak zehaztera eta horiek garatzera eramanez gaituzten estrategiak definitzen aurrera egiteko metodo arin eta eraginkorrak ezarri beharrez gaude.




4. Tokiko garapenerako zerbitzuak eta proiektuak

Ekintzailtza, enplegua eta prestakuntza, tokiko baliabideetan / tokiko soluzioetan oinarrituta, gure lan-ildo nagusiak dira. Ekintzailtza lantzea eta sustatzea dira gure iritziz lurralde bazterkeriari aurre egiteko tresna nagusia.

Tokiko ekintzailtzentzako eta sustatzaile publiko eta pribatuentzako laguntza:

Gure zerbitzurik garrantzitsuenetako bat da; ekintzaile publikoek eta pribatuek gure babesa dute haien proiektuak martxan jartzeko. Gure helburu nagusia, aurten, lehendik erabakitakoaren arabera, **Nafarroako ekintzailtza-sarearekin** bat egitea da.

Zerbitzu hori aterki ikuspegi batetik ulertzen dugu, gure gainerako estrategietan eta ekintza-ildoetan kontuan hartu beharrekoa. Aurten lan egiteko modu berriak ekarriko ditu, enplegua erregulatzeko espedientea ezarri zenetik enpresen eta ekintzaileen arlo espezializatuenerako lantalde teknikoak ez baitu jarraipenik edukiko gure erakundean. Horrela, ezinbestekoa izanen da garapen-agentzietatik egiten den lana formula eta planteamendu berriekin indartzea, erreferentziazko eta konfiantzazko teknikari gisa egiten duten lana finkatzea eta berreste aldera.



Zerbitzu-zentroak.

Aurreikusitako jardueratik eta lortutako emaitzetatik formula eta eduki berriak identifikatu nahi ditugu zerbitzu-zentro horientzat. Horrela, Alkaiagan, Lesakako Udalarekin baloratu ondoren, nabeak taldeei ere irekitzea pentsatu dugu.



Arbizun, udalak du bere gain zentroaren kudeaketa, eta Cederna Garalur Elkarteak lankidetzan dihardu zentroan kokatuta dauden erakundeekin, bitartekoak hobeto aprobetxatzeko, eta susta ditzakegun jarduerak eta proiektuak hobeto koordinatzeko. Izizeko zentroa (hitzarmena berritzeko dago) lurraldeko lantaldea eratzeko bileretarako gune gisa, eta gure elkarteak Erronkarirako eta Zaraitzurako aurreikusiko dituen ikastaroak emateko gune gisa erabiltzea pentsatu dugu.

LGPren kudeaketa.

Nabarmena izan da 2013an bi deialdi horiek argitaratzeko egindako ahalegina. 2014. urte honetan, gure ahalegina, batetik, deialdi horien jarraipenaren eta justifikazioaren ingurukoa izanen da, eta betetik, hurrengo epealdia, 2014-2020, prestatzea.

Jarduera onen eskuliburuak eta kalitate-sistemak

Cederna Garalur Elkarteari dagokionez, eta Nafarroako Gobernuaren babesarekin, beren establezimenduetan kalitatea oinarri izanen duten kudeaketa-metodoak gehitu nahi dituzten sustatzaileei ematen ari gara zerbitzua. "Kalitatearen mahaia" lurraldeko beste kolektiboek (merkataritza eta zerbitzuak barne) irekita, jarduera onen eskuliburuak abiapuntu izan behar dute osoko turismo-produktuak eraikitzen joateko, jasangarritasuna oinarri hartuta. 2013. urtean, gure ahalegina tresna hori sustatzea eta establezimendu berriak gehitzea izan zen.

Europe Direct

2014. urte honetan, funtsean, komunikazioa finkatu eta indartu nahi dugu, tren hori baliatuta. Gure baliabideak lurraldera eramateak, gure iritziz, Nafarroako Mendialdeko beste lekuetara eta eragileengana hurbiltzen lagunduko digu bigarren seihileko honetan.

2014ko LGP programako proiektu propioak

Proiektuei bukaera eta jarraipena emateko urtea da. Halaber, hurrengo epealdirako ildo estrategiko nagusiak identifikatu behar ditugu.

- Laning- Gobernantza parte-hartzaileko proiektua.
- Basolan- Biomazari buruzko proiektua eta basoari turismo-aprobetxamendua emateko proiektua.
- Merkat-ari- Esku-langintzari eta mugako merkataritzari balioa ematea.
- Enpresa-ekimena. Ideiatik merkatura, merkaturatik idejara.
- Prestakuntza, 2014



cederna garalur

- Lankidetzaproiektua. "Gure bideetan barrena", "Hurbiltasuneko merkataritza".

Estatuko proiektuak

Rural Convention Bureau. Asmoa da 2014. honetarako, produktua gehiago zehaztea eta lotura duten arazoak alderatzea ahalbidetuko diguten esperientzia pilotuak garatzea.

Interreg SUDOE

2014. urte honetan, ITERA-AA proiektua garatzen jarraituko dugu, eta 'Cybersudoe innov' proiektua abiaraziko dugu.

Lehenak, nekazaritzako elikagaien sektoreko esku-langileak, eta hurbiltasuneko zirkuitu laburrak sustatu beharra izanen ditu ardatz.

Bigarrenak, berriz, aurrean izanen du abiatzea, eta ardatz izanen du ETEetan eta mikroETEetan IKTen bidez berrikuntza txertatzea. Kasu honetan, hasiera batean ezinbestekoa izanen da partzuergoan gauzatze-epeak eta koordinazioa adostea, eraginkorki ezartze aldera.

